



**GAZTEIZKO ELIZ-BARUTIRAKO**

# **KRISTAU-IKASBIDEA**



Gotzai Jaunaren ardurapean  
Jaungoiko - jakintzaren  
erakusle-batzordeak  
antolatu du.



**GIPUZKOAKO EUSKERAZ  
(OSOA)**




1925  
«MONTEPIO DIOCESANO»-REN IRARKOLAN  
Gazteiz



ge, gi <i>erderazko</i>		gue, gui <i>bezela.</i>	
ī	»	ll	»
í	»	rr	»
x	»	ss	»
tx	»	ch	»

**Ikasbide onen euskera, Euskaltzaindiak  
oraingotz zuzenetsi du.**



*Gotzai Jaunaren baimen bezezirik  
gabe Ikasbide au beñiro argitara-  
tzea guztiz gebendua dago.*





# KRISTAU-IKASBIDEA

( O S O A )

SARERA

I IKASKIZUNA

Kristauaren izena ta ezaugaria

GALDEA. *Kristaua al zera?*

ERANTZUNA. Bai jauna, kristaua naiz, Jaungoikoari eskerak.

G. *Kristau izatea zer da?*

E. Jesukristoren erakutsiak sinistu ta bere mirabetzarako beartua egotea da kristau izatea.

G. *Nola egiten gera kristau?*

E. Bataio Donearen bitartez egiten gera kristau.



G. *Zer ezaugarí degu kristauok.*

E. Kristauok, Gurutze Donea degu ezaugarí.

G. *Gurutze Donea zer da?*

E. Gu erosi ta zeruratzeko, gurutzean iltzatua izan zan Kristoren irudia, da Gurutze Donea.

G. *Zeinbat eratan egiten du kristauak gurutzea deritzan ezaugarí au?*

E. Bi eratan egiten du kristauak gurutzea deritzan ezaugarí au: bata «Gurutze Santuaren» egiñaz, eta «Aitare» egiñaz bestea.

G. *Zer da «Gurutze Santuaren» egitea?*

E. «Gurutze Santuaren» egitea, eskuiko beatz aundiaz iru gurutze egitea da: lenengoa bekokian, aotan bigarrena, bulafetan irugarrena, Jaungoikoarekin itz egiñaz.

G. *Ea nola «Gurutze» egiten desun?*

E. «Gurutze» olaxe egiten da: Gurutze Santuaren † señaleagatik gure † etsaiengandik zaitu gaizazu † gure Jaun eta Jaungoikoa. Amen.

G. *Zertarako egiten desu gurutzea bekokian?*



E. Jaungoikoak gogorapen txafetatik zaitu nazan: egiten det gurutzea bekokian.

G. *Zertarako egiten dezu gurutzea aoan?*

E. Jaungoikoak, itz gaiztoak esatetik, zaitu nazan egiten det gurutzea aoan.

G. *Zertarako egiten dezu gurutzea bulañetan?*

E. Jaungoikoak egintza ta gurari gaiztoetatik zaitu nazan egiten det gurutzea bulañetan.

## II IKASKIZUNA

### Kristauaren ezaugariaz, geiago.

G. «*Aitaren*» egitea zer da?

E. «*Aitaren*» egitea, eskuiko beatzez gurutze bat egitea da: bekokitik bulañetaraño, ta ezkerreko sorbaldatik eskuikoraño, Irutasun guztiz Santua aitortuaz.

G. *Ea «Aitaren» nola egiten dezun?*

E. «*Aitaren*» olaxe egiten da: *Aitaren* eta *Semearen* † eta *Espiritu Santuaren* izenean. Amen.

G. *Zer adirazten degu «Aitaren» egiteko itzen bitartez?*

E. Jaungoikoaren Batasun eta Irutasuna adirazten degu «*Aitaren*» egiteko itzen bitartez.

G. *Zer adirazten degu «Aitaren» egiteko gurutzearen bitartez?*

E. Jesukristo gure Jaunaren Nekaldi ta Eriotza adirazten degu «*Aitaren*» egiteko gurutzearen bitartez.



G. *«Aitaren» noiz egin bear da?*

E. Egintza onen bat, asterakoan: bear, tentaketa naiz galbideetan arkitzean; oetik jaikitzean, etxetik irtetzean, Elizan sartzean, jaterakoan eta lotarakoan egin bear da «Aitaren».

G. *On al da askotan «Aitaren» egitea?*

E. Gure animaren etsaiak, nunai ta beti gu galdu ta ondatu naiez dabilta, ta on da askotan «Aitaren» egitea.

G. *Zein dira etsai oek?*

E. Diabrua, mundua ta aragia dira gure animaren etsaiak.

G. *Gurutzeak bai al du animaren etsaiak garaitzeko indarrik?*

E. Bai jauna, Kristok gurutzeko eriotzaren bitartez garaitu zituanezkero, badu gurutzeak animaren etsaiak garaitzeko indarra.

G. *Gurutzeari agur egitean zer esan bear da?*

E. Gurutzeari agur egitean, auxe esan bear da: Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez biñerosi zendualako.

### III IKASKIZUNA

**Kristau-ikasbidea zer dan eta zenbat zati dituan**

G. *Kristau-ikasbidean zer dago?*

E. Jesukristok erakutsi zuana dago Kristau-ikasbidean.



G. *Eta Kristau-ikasbide onetan, zenbat gauza jakin eta aditu bear ditu kristauak ezagueran sartzean?*

E. Lau gauza jakin eta aditu bear ditu kristauak ezagueran sartzean: Zer sinistu, zer eskatu, zer egin eta zer artu bear duan.

G. *Nola jakingo du kristauak zer sinistu bear duan.*

E. Kredoan ikasi ta jakingo du kristauak zer sinistu bear duan.

G. *Nola jakingo du kristauak zer eskatu bear duan?*

E. «Aita gurea» ta Elizaren beste eskariak ikasi ta, jakingo du kristauak zer eskatu bear duan.

G. *Nola jakingo du kristauak zer egin bear duan?*

E. Jaungoikoaren Legeko aginduak, eta Ama Eliza Donearenak eta erukizko egintzak ikasi-ta, jakingo du kristauak zer egin bear duan.

G. *Nola jakingo du kristauak zer artu bear duan?*

E. Ama Eliza Donearen Sakramentuak ikasi-ta, jakingo du kristauak zer artu bear duan.







XI PIO E'ROMA'KO

:: AITA SANTUA ::





# KRISTAU-IKASBIDEAREN LENENGO LAURDENA

## KREDOAK ERAKUSTEN DIGUNA

### IV IKASKIZUNA

#### “Kredoak” aundizka

G. *Kredoak edo Apostoluen agiria zer da?*

E. Jesukristok erakutsi ta Apostoluak zabaldu zuten siniskai-xorta da Kredoak edo Apostoluen agiria.

G. *Ea esazu Kredoak.*

E. Sinisten det Jaungoiko Aita al-guztidun, zeru-luñen egilea, ta bere Same bakar Jesukristo gure Jauna: Espiritu Santuaren egitez sortu ta Andre Maria Birgiñagandik jaio zana, Pon-



tzio Pilatoren mendean nekaldua, gurutzean iltzatua, iñā ta obiratua izan zana, inpernuetara jetxi ta irugañen egunean iñen artetik piztu zana: zeruetara igo ta Aita Jaungoiko alguztidunaren eskuialdetik eseririk dagona: andik biziak eta iñak epaitzera etoñiko dana. Sinisten det Espiritu Santua: Eliza Santu, Katolikua: Santuen alkartasuna: pekatuen barkamena: aragiaren piztuera, betiko bizitza. Amen

V IKASKIZUNA

**Kredoaz geiago: Sinistea.**

G. *Sinismena zer da?*

E. Ikusi ezteguna, Jaungoikoak agertu digulako, egitzat eukitzea: da sinismena.

G. *Ikusi al zenduan Jesukristo, jaiotzen edo iltzen?*

E. Ez jauna; ez nuan ikusi Jesukristo, ez jaiotzen ez iltzen.

G. *Sinisten al-dezu, Jesukristo jaiota il zala?*

E. Bai jauna; sinisten det, Jesukristo jaiota il zaia.



G. *Ikusten al dezu, Jesukristo gure Jauna, Aldareko Sakramentu guztiz Donean?*

E. Ez jauna, ez det ikusten Jesukristo gure Jauna, Aldareko Sakramentu guztiz Donean.

G. *Sinisten al-dezu, Jesukristo gure Jauna, Aldareko Sakramentu guztiz, Donean egiazki dagola?*

E. Bai jauna; sinisten det: Jesukristo gure Jauna, Aldareko Sakramentu, guztiz Donean egiazki, dagola.

G. *Zergatik sinisten dezu ori; ta, sinismenak erakusten duan, gañerako guztia?*

E. Jaungoiko gure Jaunak, onela agertuta Ama Eliza Doneak, onelaxe erakusten digulako; sinisten det ori; ta, sinismenak erakusten duan, gañerako guztia.

G. *Eta zergatik sinisten dezu, Elizak erakusten duan guztia?*

E. Jaungoikoaren laguntza berezi baten birtartez, Eliza uts-eziña dalako; sinisten, det berak erakusten duan, guztia.

G. *Eta Jaungoikoa, uts-ezina al da?*

E. Bai jauna; Jaungoikoa berez, uts-eziña da.

G. *Eta uts-eziña izatea zer da?*

E. Bera, ezertan ezin oker egon; eta guri, gezurik ezin esan izatea; da utseziña izatea.



## Kredoaz geiago: Siniskaiak

G. *Zer da zuk, kristau zeranez, sinisten dezuna?*

E. Sinismeneko egi guztiak, Kredoaren siniskaiak, batez ere; dira nik, kristau naizenez, sinisten ditudanak.

G. *Beahezkoa al da sinistea, zerua iristeko?*

E. Beahezkoa da, bai, sinistea, zerua iristeko.

G. *Naikoa al da sinistea, zerua iristeko?*

E. Ez jauna, siniste utsa, goimaitasun edo karidade ta egintza onikan gabe, ez da naikoa zerua iristeko.

G. *Kredoaren siniskaiak, zer dira?*

E. Sinistu bear ditugun, ezkutuki edo misterio nagusiak; dira Kredoaren siniskaiak.

G. *Sinismen-ezkutukiak, zer dira?*

E. Berez egiak izanañen, gure adimenak iritxi ezin dituan; eta Jaungoikoak erakutsita, dakizkigun egi batzuek; dira sinismen-ezkutukiak.

G. *Zertarako dira, Kredoaren siniskaiak?*

E. Jaungoiko gure Jaun, Jesukristo gure Salbatzale, ta Ama Eliza Donearen beñiak, argi ta garbi emateko; dira Kredoaren siniskaiak.



**Kredoaren lenengo siniskaia: Jaungoikoa bada-  
la ta bere bikaintasunak.**

*G. Zein da, Kredoaren lenengo siniskaia?*

**E. Kredoaren lenengo siniskaia, au-  
xe da: Sinisten det Aita Jaungoiko  
alguztidun, zeru-lurén egilea.**

*G. Nor da Jaungoikoa?*

**E. Izan diteken izakirik bikañena;  
zeru—lurén Egile ta Jabea, onai, betiko  
zoriona; ta gaiztoai, betiko zoritxaña  
emango dien, Jauna: da Jaungoikoa.**

*G. Nundik dakigu, Jaungoikoa badala?*

**E. Gure ezaguerak erakutsi, ta sinismenak  
baiezten digulako, dakigu; Jaungoikoa badala.**

*G. Nola erakusten digu gure ezaguerak, Jaun-  
goikoa badala?*

**E. Zeru-lurak, beren ibili arigari, edertan-  
sun eta zati guztien egokitasuna, Jaungoiko egi-  
lerikan gabe, ezin izan ditezkela, agertuaz, erakus-  
ten digu gure ezaguerak, Jaungoikoa badala.**

*G. Zergatik deritzaio, «izakirik bika-  
ñena», Jaungoikoari?*

**E. Iñungo bikaintasun guztiak, neuri-  
gabe ditualako; deritzaio «izakirik bika-  
ñena», Jaungoikoari.**



G. *Jaungoikoak, nola saritzen ditu onak?*

E. Jaungoikoak, zeruetara eramanez; saritzen ditu onak.

G. *Jaungoikoak, nola zigorkatzen ditu, gaiztoak?*

E. Jaungoikoak, inpernura amilduaz, zigorkatzen ditu gaiztoak.

G. *Nun dago Jaungoikoa?*

E. Toki guztietan dago Jaungoikoa.

G. *Jaungoikoak, dan guztia, ikusten, al-du?*

E. Bai jauna, Jaungoikoak dan guztia, ikusten du; baita gure gogorapenak ere.

G. *Jaungoikoa, beti izan al-da?*

E. Jaungoikoa betikoa da; beti izan da ta baita izango ere.

G. *Zergatik deritzaio «alguztiduna» Jaungoikoari?*

E. Bere al utsez, nai duan guztia, egiten dualako; deritzaio «alguztiduna» Jaungoikoari.

G. *Bai al-du Jaungoikoak, gorputzik guk bezela?*

G. Jaungoikoa, Jaungoikoa danez, espíritu edo gogo uts-utsa da; ez du gorputzik guk bezela.



G. *Zeinbat Jaungoiko dira?*

E. Ez da Jaungoiko bat besterik,

VIII IKASKIZUNA

**Kredoaren lenengo siniskaiaz, geiago: Irutasuna**

G. *Irutasun edo Trinitate guztiz Santua, nor da?*

E. Irutasun edo Trinitate guztiz Santua, Jaungoikoa bera da; iru persona banak, baina Jaungoiko bakar bat.

G. *Nola dute izena, iru notin edo persona, Jaungoikozko oiek?*

E. Iru notin edo persona Jaungoikozko oiek, Aita, Semea ta Espiritu Santua, dute izena.

G. *Aita Jaungoikoa al da?*

E. Bai jauna; Aita Jaungoikoa da.

G. *Semea Jaungoikoa al da?*

E. Bai jauna, Semea Jaungoikoa da.

G. *Espiritu Santua Jaungoikoa al da?*

E. Bai jauna, Espiritu Santua ere Jaungoikoa da.

G. *Aita ta Semea ta Espiritu Santua, iru Jaungoiko al dira?*

E. Aita ta Semea ta Espiritu Santua,



ez dira iru Jaungoiko; irurak egiazko Jaungoiko bakaf bat baizik.

G. *Aita Semea al da?*

E. Ez Jauna, Aita ez da Semea.

G. *Espiritu Santua. Aita edo Semea al-da?*

E. Ez jauna, Espiritu Santua ez Aita da ta ez Semea.

G. *Zergatik ori?*

E. Iru persona banak diralako.

G. *Zer da, beraz, Irutasuna deritzan ezkutukia?*

E. Jaungoikotasun bakaf batean, iru notin edo persona izatea da Irutasuna deritzan ezkutukia.

#### IX IKASKIZUNA

**Kredoaren lenengo siniskaiaz, geiago: Jaungoiko egilea: Aingeruak.**

G. *Zergatik deritzaio "egilea," Jaungoikoari?*

E. Dan guztia, ezerezetik, atera, zualako; deritzaio "egilea" Jaungoikoari.

G. *Zein dira, Jaungoikoak egindako, izakirik bikañenak?*

E. Aingeruak eta gizonak dira; Jaungoikoak egindako, izakirik bikañenak.

G. *Aingeruak, zer dira?*

E. Zeruan, Jaungoikoagan, atsegin-



tzen dauden, espiritu edo gogo uts zoriondunak; dira aingeruak.

G. *Zertarako egin zituan Jaungoikoak aingeruak?*

E. Beti ta beti Bera onetsi ta goratu zezaten; egin zituan Jaungoikoak aingeruak.

G. *Zertarako bidaltzen ditu Jaungoikoak aingeruak?*

E. Bere mirabe diranez, Eliza zaitu ta gizonen ardura izan dezaten; bidaltzen ditu Jaungoikoak aingeruak.

G. *Badezu, beraz, zuk ere aingeru zaitzalea?*

E. Bai jauna; gizon bakoitzak, badu bere aingeru zaitzalea; ta nik ere badet nerean.

G. *Zer dira diabruak?*

E. Jaungoikoaren aurrez-aurre, altxa ziralako, inpernura, amilduak izan ziran, gogo utsak; dira diabruak.

#### X IKASKIZUNA.

**Kredoaren Ionengo siniskaiatz geiago: Jaungoiko egilea: Gizona.**

G. *Gizona zer da?*

E. Anima ta gorputzaz osotutako, izaki adimenduna; da gizona.

G. *Zer da gure anima?*

E. Jaungoikoak, bere iduri ta antze-



koa, egin zuan, gogo-izaki ilezkoñ: da gure anima.

G. *Nola da gure anima, Jaungoikoaren antz-irudia?*

E. Ezaguera ta aukeramena dituan, gogo edo espiritu ileziña, dalako, da gure anima Jaungoikoaren antz-irudia.

G. *Zergatik deritzaio ilezkoñ: gure animari?*

E. Iñoiz ilko ez dalako, deritzaio ilezkoñ: gure animari.

G. *Egia al-da, anima badegula?*

E. Bai jauna; egia da, anima badegula; ez genduke, bestela, ez gogorapenik, ez nai-izaterik, ez aukerapen, eta ez erantzukirik izango.

G. *Ikusi ta ikutu al diteke, gure anima?*

E. Gure anima gogo edo espiritua da: ez diteke ez ikusi, ez ikutu.

G. *Zeinbat dira animaren almenak?*

E. Animaren almenak iru dira: oroimena, adimena ta naimena.

G. *Zertarako eman zigun Jaungoikoak, oroimena?*

E. Bera ta bere onegiñak, oroitu ta gogoan izateko; eman zigun Joaungoikoak oroimena.

G. *Zertarako eman zigun Jaungoikoak, adimena?*

E. Bera ezagutu ta gogoan erabiltzeko; eman zigun Jaungoikoak adimena.

G. *Zertarako eman zigun Jaungoikoak, naimena?*

E. Jaungoikoa, ontasun utsa danez Bera, ta gure lagun urkoak Beragatik maita ditzagun, eman zigun Jaungoikoak naimena.

G. *Zertarako eman zizkigun Jaungoikoak, gorputza ta gorputzaren zentzunak?*



E. Gauza guztietan, bere alde, lan egin dezagun, eman zizkigun Jaungoikoak gorputza ta gorputzaren zentzunak.

G. *Jaungoikoa, danaren jabea al da?*

E. Jaungoikoa, danaren Jaun eta Jabea da: Berak egin zuan dana ta ez da, bere baimenikan gabe, munduan ezertxo ere gertatzen.

G. *Bai al-du Jaungoikoak, izaki guztien ardura?*

E. Badu Jaungoikoak, izaki guztien ardura; gizonarena, batez ere.

#### XI IKASKIZUNA

**Kredoaren lenengo siniskaiatz geiago: Jaungoiko egilea: Gizonaren goraltzea ta erortza.**

G. *Zertarako, egin zuan Jaungoikoak, gizona?*

E. Bizitza onetan, bere mirabe izan, eta gero, Bera ikusi ta maite izanaz, betiko atsegiñetan, bizi izateko, egin zuan Jaungoikoak gizona.

G. *Eta ondoren ori iristeko, nola ipiñi zituan Jaungoikoak, gure lenengo gurasoak?*

E. Graziakoa deritzan izaeran ipiñi zituan Jaungoikoak, gure lenengo gurasoak.

G. *Iraun al zuten beti, gure lenengo gurasoak, graziakoko izaeran?*



E. Ez jauna, ez zuten iraun, gure lenengo gurasoak, graziazko izaeran: oben egiñaz, galdu egin zuten, berentzat eta guretzat, izaera ura, eta ofela jatorrizko oben edo pekatuan, eroriarazi ginduzten.

G. *Zer da jatorrizko oben edo pekatua?*

E. Gure lenengo gurasoengandik, sortzez guztiok dakarguna, da jatorrizko oben edo pekatua.

G. *Zer galdu zuan gizonak jatorrizko obenagatik?*

E. Graziazko bizieraz gañera, Jaungoikoak, biziera onen lagungari, eman zizkion emaitza ta doai guztiak galdu zituan gizonak jatorrizko obenagatik.

G. *Zor al zitzazkion gizonari emaitza aiek?*

E. Ez zitzazkion zor gizonari emaitza aiek: Jaungoikoaren ongina utsezko ta zerutitakoak ziran guztiak, eta beragatik Jaungoikoak, okerbidetik gabe, kendu zitzazkioken bai Adani, baita bere ondorengo guztioi ere.

G. *Izan al da iñor, gizonen artean, Jaungoikoak jatorrizko oben ori gabe egin duanik?*

E. Bai jauna, gizonen artean, bada bat, Jaungoikoak, (Jesukristoren irabazkietan) jatorrizko oben ori gabe egin zuana: Andre Maria Ama-Birjiña graziaz betea.

G. *Bere artan utzi ote zuan Jaungoikoak gizona, obena egin zuanean?* —

E. Etzuan bere artan utzi Jaungoikoak gizona, obena egin zuanean; erukitu zitzaion ta Salbatzailea agindu zion.



E. *Zein da Jaungoikoak gizonari agindutako Salbatzailea?*

E. Jaungoikoak gizonari agindutako Salbatzailea, Jesukristo gure Jauna da.

## XII IKASKIZUNA

**Kredoaren bigarren siniskaia: Jesukristo.**

G. *Zein da bigarren siniskaia?*

E. Bigarren siniskaia auxe da: **Sinisten det bere seme bakar, Jesukristo gure Jauna.**

G. *Irutasun guztiz Donearen iru personetatik zein egin zan gizon?*

E. Irutasun guztiz Donearen iru personetatik bigarrena, Semea egin zan gizon.

G. *Aita egin al zan gizon?*

E. Aita ez zan egin gizon.

G. *Espitu Santua egin al zan gizon?*

E. Espiritu Santua ez zan egin gizon.

G. *Jaungoikoaren Seme gizon egiñak nola du izena?*

E. Jaungoikoaren Seme gizon egiñak, Jesukristo du izena.

G. *Eta nor da Jesukristo.*

E. Gu erosi ta guri nola bizi era-



kustearren gizon egindako, Jaungoikoaren Semea da Jesukristo.

G. *Zeinbat izakitasun ditu Jesukristok?*

E. Jesukristok, bi izakitasun ditu: bata jaungoikozkoa, ta gizonezkoa bestea.

G. *Zeinbat notin edo persona dira Jesukristogan?*

E. Jesukristogan ez da notin (edo persona) bakar bat besterik: Irutasun guztiz Donearen bigarrena.

G. *Jesus izenak zer esan nai du?*

E. Jesus izenak, askatzalea, salbatzalea esan nai du.

G. *Nola askatu ginduzen Jesusek?*

E. Gure obenetatik eta inpernuko etsaiaren mendetik aterata askatu ginduzen Jesusek.

G. *Kristo izenak zer esan nai du?*

E. Kristo izenak, igortzia esan nai du.

G. *Nola izan zan igortzia Kristo?*

E. Espiritu Santuaren graziaz ta emaiez izan zan igortzia Kristo?

### XIII IKASKIZUNA

**Kreadoaren irugarren siniskaia: Jesukristoren soñera ta jaiotza**

G. *Irugarren siniskaia zein da?*

E. Irugarren siniskaia auxe da: **Sinisten det Jesukristo Espiritu Santua-**



ren egitez sortu ta Andrea Maria Birji-  
ñagandik jaio zala.

G. *Zer erakusten digu irugañen si-  
niskaiak?*

E. Jaungoiko-Semearen «Gizakundea»  
erakusten digu irugañen siniskaiak.

G. *Gizakunde edo Inkarnazioak, zer  
adirazten digu?*

E. Jaungoiko-Semeak, gizatasuna be-  
raganatu ta beretu zuala adirazten digu  
Gizakunde edo Inkarnazioak.

G. *Nola egin zan gizon, Jaungoikoa-  
ren Semea?*

E. Andre Mariaren sabel garbi-garbian,  
Espiritu Santuaren egitez, gurea bezelako  
gorputza ta gurea bezelako anima artuaz,  
egin zan gizon Jaungoikoaren Semea.

G. *Jaungoikoaren Semeak, gizon egitean gal-  
du ai zuan Jaungoikotasuna?*

E. Jaungoikoaren Semeak, gizon egitean, ez  
zuan galdu Jaungoikotasuna; Jaungoiko izatea  
galdu gabe egin zan gizon.

G. *Eta nola jaio zan Jesukristo, Andre Ma-  
riagandik?*

E. Eguzki-argia, kristalean batetik bestera,  
ezer autsi ta zikindu gabe igarotzen dan lezelaxe,  
jaio zan Jesukristo, Andre Mariagandik: Amaren  
garbitasuna, batere lausotu gabe.

G. *Jesukristoren Amak beti Birjiña  
iraun al zuan?*



E. Bai jauna, Jesukristoren Amak bere bizi guztian Birjiña iraun zuan.

G. *Nor da Andre Maria Ama Birjiña?*

E. Jaungoikoaren Ama dan eta zeruan dagon Andre, graziaz ta onoimenez betea da Andre Maria Ama Birjiña.

G. *Zergatik deritzaio Jaungoikoaren Ama Andre Maria Ama Birjiñari?*

E. Bere Seme Jesukristo, egiazko Jaungoikoa dalako, deritzaio Jaungoikoaren Ama, Andre Maria Ama Birjiñari.

G. *Eta Jesukristo gure Jaunak, gizona danez, aitarik bai al-du?*

E. Jesukristo gure Jaunak, gizona danez, ez du aitarik; Jaungoikoaren egintza ariagariz, Ama Birjin garbiagandik jaio zan.

G. *Eta San José zer da?*

E. Andre Maria Birjiñaren ezkontide, ta Jesukristo gure Jaunaren Aita-ordea da San Jose.

### **Jesukristoren bizitza ta erakutsiak**

G. *Nun jaio zan Jesukristo.*

E. Belengo estalpe xar batean jaio zan Jesukristo.

G. *Zer egin zuan Jesukristok, ogeitamar urteak arte?*

E. Nazaréten, Andre Maria Birjiña ta San Joseren etxean, ixil, beartsu ta lanean bizi izan zan Jesukristo, ogeitamar urteak bete arte guztian.

G. *Zer egin zuan Jesukristok bere azkeneko iru urteetan?*

E. Ikuskañi ta ariagarñi asko egiñaz, bere erakutsiak, zabaldu egin zituan Jesukristok, bere azkeneko iru urteetan.



G. *Jesukristo bera Jaungoikoa, ta bere erakutsiak Jaungoikozkoak dirala sinistarazteko, bere egintza ařigarięz gañera, bai al da beste ageririk?*

E. Bai jauna, Jesukristo bera Jaungoikoa, ta bere erakutsiak, Jaungoikozkoak dirala, sinistarazteko, Jesukristoren egintza ařigarięz gañera, badi-ra beste ageriak ere: Lenengoa, Jesukristo gure Jaunagan, betetako igarkari, ta aldez aurretiko esanak; Bigarren bere bizitza zuzena; Irugarren, bere erakutsi bikañak; Laugarren, Kristaudiaren zabal-tze ařigaria; Boskarren, Martirięn eraman aundi ta ausartasuna; Ta seigarren, Santuen onoimen edo birtuteak.

#### XIV IKASKIZUNA

**Kredoaren laugarren siniskaia: Jesukristoren Nekaldi, Eriotz eta Obiratzea**

G. *Zein da laugarren siniskaia.*

E. Laugarren siniskaia, auxe da: **Si-**nisten det Jesukristo, Pontzio Pilato-ren mendean nekaldua, gurutzean iltzatua, ila ta obiratua izan zala.

G. *Zer erakusten digu laugarren siniskaiak?*

E. Gure Erospena, edo Eředentzioa, erakusten digu laugarren siniskaiak.

G. *Zer da Erospena deritzan ezkutuki edo misterioa?*

E. Jesukristoren Nekaldi, ta Gurutze-ko eriotza, da Erospena deritzan ezkutuki edo misterioa.



G. *Zergatik nai izan zuan Jesukristok, Nekaldia igaro, ta Gurutzean il?*

E. Gure pekatuen zofak ordaindu ta gu, betiko eriotzatic, ateratzearen, nai izan zuan Jesukristok, Nekaldia igaro ta Gurutzean il.

G. *Jesukristoren neke-oñaze guztiak, gu erosteko bearezkoak al ziran?*

E. Ez jauna, Jesukristoren neke-oñaze guztiak ez ziran, gu erosteko bearezkoak; aietan txikiak ere ordain-indar mugarik gabea zuan Jaungoikoarentzat.

G. *Zergatik artu nai izan zituan Jesukristok, oñenbeste neke-oñaze?*

E. Bere guganako maitasuna ta gure obenen itsuskeria, guri obeki erakustearen, artu nai izan zituan Jesukristok, ainbeste neke-oñaze.

G. *Nun ta noiz il zan Jesukristo?*

E. Jerusalem, Golgota-mendian, Ostiraldeun aratsaldean il zan Jesukristo.

#### XV IKASKIZUNA

**Kredoaren boskañen siniskaia: Jesukristoren Inpernuetara Jeixtea ta Piztutzea**

G. *Zein da, boskañen siniskaia?*

E. Boskañen siniskaia auxe da: **Sinisten det Jesukristo inpernuetara je-**



txi ta irugaŕen egunean, ilen artetik piztu zala.

G. *Zein inpernutara jetxi zan Jesukristo il ondorean?*

E. Jesukristo, il ondorean jetxi zan inpernua zintzoen linboa da, ez gaizto galduen tokia.

G. *Zertara jetxi zan Jesukristo linbora?*

E. Bere etoŕeraren zai zeuden Guraso Doneen animak ateratzera, jetxi zan Jesukristo zintzoen linbora.

G. *Nola jetxi zan Jesukristo zintzoen linbora?*

E. Bere anima Jaungoikotasunaz batua zuala, jetxi zan Jesukristo zintzoen linbora.

G. *Nola gelditu zan il ta gero Jesukristoren gorputza?*

E. Obian, Jaungoikotasunaz batua gelditu zan il ta gero Jesukristoren gorputza.

G. *Nola piztu zan Jesukristo irugaŕen egunean?*

E. Bere gorputz eta anima, beŕiz ez iltzeko alkarganatuaz, piztu zan Jesukristo irugaŕen egunean.

G. *Nola dakigu Jesukristo piztu zala?*

E. Jesukristo pizturik ikusi ta egi au ukatu baŕno il naiago izan zuten Apostolu ta gaŕnerako Ikasleak esan-da, dakigu Jesukristo piztu zala.



Kredoaren sei ta zazpigarren siniskaia: Jesukristoren zeruetara igotzea ta epaitzerako, etoñera.

G. *Zein da seigarren siniskaia?*

E. Seigarren siniskaia auxe da: Sinisten det Jesukristo zeruetara igo ta Aita Jaungoiko Alguztidunaren, eskui aldetik, eseririk dagola.

G. *Nola igo zan Jesukristo zeruetara?*

E. Bere ân utsez, Apostolu ta Ikasle-talde aundi baten uñean igo zan Jesukristo zeruetara.

G. *Jesukristo zeruan beste iñon ez aldago?*

E. Jesukristo gure Jauna Jaungoikoa danez, toki guztietan dago: ta gizona danez, zeruan eta aldareko Sakramentu guztiz Donean.

G. *Zer esan nai du Aita Jaungoikoaren eskui-aldetik eseririk egoteak?*

E. Jesukristok, Jaungoikoa danez, Aitak ainbat aintza edo gloria, ta, gizona danez beste iñork baño geiago duala, esan nai du Aita Jaungoikoaren eskui-aldetik, eseririk egoteak.

G. *Zein da zazpigarren siniskaia?*

E. Zazpigarren siniskaia auxe da: Si-



nisten det Jesukristo zerutik biziak eta ilak epaitzera etoriko dala.

G. *Noiz etoriko da Jesukristo biziak eta ilak epaitzera?*

E. Munduaren bukaeran etoriko da Jesukristo biziak eta ilak epaitzera.

G. *Nola du izena, Jesukristok, munduaren bukaeran gizon guztiak epaituko dituan auzitaldiak?*

E. Jesukristok, munduaren bukaeran gizon guztiak epaituko dituan auzitaldiak, azken-auzia du izena.

G. *Eta auzitaldi bat baño geiago izango al da?*

E. Bi auzitaldi izango dira: bata bakoitzarentzat il ondoren, eta guztientzat munduaren bukaeran bestea.

G. *Zertarako izango da azken-auzia?*

E. Guztien aurrean gaiztoak lotsatan uzteko, onak txaloz goratzeko ta Jaungoikoaren zuzentasuna guztien gañetik garaitzale agertzeko, izango da azken-auzia.

## XVII IKASKIZUNA

**Kredoaren zortzigañen siniskaia: Espiritu Santua**

G. *Zeinda zortzigañen siniskaia?*

E. Zortzigañen siniskaia, auxe da:

**Sinisten det Espiritu Santua.**

G. *Nor da Espiritu Santua?*

E. Aita eta Semeagandik datoñen,



Irutasun guztiz Donearen irugafen perso-  
na, da Espiritu Santua.

G. *Nun dago Espiritu Santua?*

E. Espiritu Santua Jaungoikoa da, ta toki guztietan dago; baña kristau on eta zintzoengan, batez ere, bizi da.

G. *Zer egiten du Espiritu Santuak kristau on eta zintzoen animetan?*

E. Animak donetu ta bere emaitz eta sor-  
kariz apaindu egiten ditu Espiritu Santuak.

G. *Zein dira Espiritu Santuaren Emaitz edo Doaiak?*

E. Espiritu Santuaren Emaitzak, zazpi dira:

Lenengoa, jakinduria;

Bigařena, adimena;

Irugařena, burubidea;

Laugařena, jakintza,

Boskařena, sendotasuna;

Seigařena, Jaungoikoarekiko biozperatasuna;

Zazpigařena, Jaungoikoarekiko bilduřa.

G. *Zein dira Espiritu Santuaren Sorkariak?*

E. Espiritu Santuaren Sorkari edo Frutuak,  
amabi dira:

Lenengoa, goimaitasuna;

Bigařena, animaren lasaitasuna;

Irugařena, biotzabaltasuna;

Laugařena, onberatasuna;

Boskařena, zintzotasuna;

Seigařena, neuriztasuna;

Zazpigařena, poza;

Zortzigařena, eramana;

Bederatzigařena, onginaia;

Amargařena, otzantasuna;

Amaikagařena, xotiltasuna;

Amabigařena, garbitasuna.

*caridad*  
*kar.*  
*longanidad*  
*vergüenza*  
*fideltad*  
*continencia*  
*goza*  
*poza*  
*reverencia*  
*bondad*  
*mansedumbre*  
*modestia*  
*castidad*



G. *Noiz bidali zion Jesukristok, Espiritu Santua bere Elizari?*

E. Pentekostetan, Bera zeruetara igo ta, amargáren egunean : bidali zion Jesukristok Espiritu Santua bere Elizari.

### XVIII IKASKIZUNA

**Kredoaren bederatzigáren siniskaia: Eliza, ta Santuen alkartasuna.**

G. *Zein da, bederatzigáren siniskaia?*

E. Berderatzigáren siniskaia, auxeda: **Sinisten, det, Ama Eliza santu ta katolikua: Santuen alkartasuna.**

G. *Eliza zer da?*

E. Kristau sinistedunen batzaña, da Eliza; Eñomako Aita Santua buru duala.

G. *Eñomako Aita Santua, nor da?*

E. Luñean, Jesukristoren orde dan, Gotzai edo Obispo Nagusia, da Eñomako Aita Santua.

G. *Eñomako Aitaren esanetara-egoteko, beartuak al gaude?*

E. Bai jauna; Eñomako Aitaren esanetara egoteko, beartuak gaude.

G. *Eñomatako Aitari sinisteko, beartuak al gaude?*

E. Bai Jauna, Eñomako Aita utseziña da; ta berari sinisteko, beartuak gaude.



G. *Nola da utseziña, Eñomako Aita?*

E. Jesukristo gure Jaunak, agindutako Espiritu Santuaren laguntzaz: da utseziña Eñomako Aita.

G. *Zertan da utseziña Eñomako Aita?*

E. Sinismen ta oitura-gaietan, zer edo zer erabakiaz, Eliz guztiari erakustean; da utseziña Eñomako Aita.

G. *Eñomako Aitaren urén, Jaungoikoaren aginduz nori zor diogu begirune ta menpetasuna?*

E. Eñomako Aitaren urén, Jaungoikoaren aginduz, Gotzai edo Obispoai, zor diegu, begirune ta menpetasuna.

G. *Zer dira, Gotzai edo Obispoak?*

E. Apostolu Doneen oñordekoak; dira Gotzai edo Obispoak; bakoitzak bere Elizbarutia, Eñomako Aitaren mendean zaitzeko, Espiritu Santuak ipiñiak.

G. *Nortzuk laguntzen diete Gotzaiari, animak zaitzeko eginkizunean?*

E. Apaizak, eta eriko Apaiz Nagusiak; batez ere; laguntzen diete Gotzaiari, animak zaitzeko eginkizunean.

#### XIX IKASKIZUNA

**Kredoaren bederatzigarren sinisyaiaz geiago:  
Eliza Katolikua, ta Santuen alkartasuna.**

G. *Gure Ama Eliza Donea, nor, ja-  
ria da?*

E. Gure Ama Eliza Donea, Jesukristok, jaria da.



G. *Zenbat Eliza, jañi zituan, Jesukristok?*

E. Jesukristok, ez zuan Eliza bat besterik jañi; eta ofegatik, ura bakariak da egiazko Eliza.

G. *Zein dira, egiazko Elizaren ezaugarriak?*

E. Egiazko Elizaren ezaugarriak, lau dira: Bat, eta Donea, eta Katolikua, eta Apostolutara izatea.

G. *Zein Eliza da, lau ezaugarri oiek dituan Eliza bakaria?*

E. Eliza Katoliku Erromatarra da, lau ezaugarri oiek dituan Eliza bakaria.

G. *Zergatik deritzaio Erromatarra Eliza Katolikuari?*

E. San Pedroren oñordeko dan Erromako Gotzaia buru dualako, deritzaio Erromatarra Eliza Katolikuari.

G. *Zeruan sartu al diteke, Eliza Katolikuan bizi ez danik?*

E. Ez diteke zeruan sartu, bere nai ta efuz Eliza Katolikuan bizi ez danik.

G. *Zeintzuk dira Eliza Katolikuan ez daudenak?*

E. Siniste-gabeak, siniste-ausleak, sinispen ukatzaleak, Erromako Aita buru ez dutenak, eta Kristauen alkartasunetik boteak; dira Eliza Katolikuan ez daudenak.

G. *Gure Ama Eliza Katolikua, il eta amaitu al diteke?*

E. Jesukristok agindu zionez, gure Ama Eliza Katolikuak, bere etsaiengandik eraso ta jasa ikaragarriak izan ditzake; bañan ez da, inoiz ere, il eta amaituko.

G. *Zergatik ditu Eliza Katolikuak orenbeste etsai?*

E. Jesukristok berak ere ugari izan zitualako, ta gañera, griña gaizto, zuzengabekeri, uste oker,



eta gezur guztiak debekatu ta gaitzetsi ditualako, ditu Eliza Katolikuak ofenbeste etsai.

### Santuen alkartasuna

G. *Zer esan nai du, «Santuen alkartasunak»?*

E. Eliza deritzan, Batzar onen goiondasunak, batzarkide guztien artean, banatzen dirala; esan nai du «Santuen alkartasunak».

G. *Zeintzuk dira Elizako batzarkideak?*

E. Zeruko zoriondunak, Garbitokiko anima gaxoak, eta luñean, animaren etsaiekin gudan bizi diran sinistedun kristauak dira Elizako batzarkideak.

G. *Zeintzuk dira Elizako goi-ondasunak?*

E. Jesukristoren, Andre María Birjiñaren, eta beste Done guztien irabazkiak; Sakramentu, otoitz, eta gañerako egintza on guztiak, dira Elizaren goi-ondasunak.

G. *Zergatik banatzen dira Elizaren goi-ondasunak batzarkide guztien artean?*

E. Guztiak Elizarekin gorputz bat bezela egi-ten dutelako banatzen dira Elizako batzarkideen goi ondasunak, alkarfen artean.

G. *Oben lañian bizi diranak, Santuen alkartasunean sartzen al dira?*

E. Oben lañian bizi diranak ere sartzen dira Santuen alkartasunean, baña obenen barkapena Jaungoikoagandik iristeko bear duten laguntza besterik et dute artzen.



Kredoaren amar, amaika ta amabigañen siniskaia: Pekatuen barkamena, aragiaren piztuera ta betiko bizitza.

G. *Zein da amargañen siniskaia?*

E. Amargañen siniskaia, auxe da:

**Sinisten det pekatuen barkamena.**

G. *Zer erakusten digu amargañen siniskaiak?*

E. Pekatu guztiak, alik geien eta lañienak izan-da ere; barkatzeko eskubidea, Jesukristok bere Elizari eman ziola; erakusten digu amargañen siniskaiak.

G. *Zein da amaikagañen siniskaia?*

E. Amaikagañen siniskaia auxe da:

**Sinisten det aragiaren piztuera.**

G. *Zein da amabigañen siniskaia?*

E. Amabigañen siniskaia auxe da:

**Sinisten det betiko bizitza.**

G. *Zer erakusten digute amaikagañen ta amabigañen siniskaiak?*

E. Gizonaren azkenak: erakusten dizkigute amaikagañen ta amabigañen siniskaiak.

G. *Zeinbat dira gizonaren azkenak?*



E. Gizonaren azkenak lau dira: Eriotza, auzia, inpernua ta zerua.

G. *Zer da eriotza?*

E. Anima ta gorputzak alkar uztea da eriotza.

G. *Zer gertatzen zaio gorputzari il ondorean?*

E. Usteldu [ta auts biurtzen da gorputza il ondorean.

G. *Ta munduaren bukaeran, ildako guztiak piztuko al dira?*

E. Bai jauna, munduaren bukaeran piztuko dira ildako guztiak; len izan zituzten gorputz eta anima berakin.

G. *Zer gertatuko zaio gure animari gu ildakoan?*

E. Gu ildakoan, gure animari Jaungoikoak bakoitz-auzian, epaia emango dio.

G. *Nora joango da gure anima bakoitz-auziaren ondorean?*

E. Bakoitz-auziaren ondorean, gure anima, edo inpernura, edo garbitokira, edo zerura joango da; bakoitzak irabazi duanez.

#### XXI IKASKIZUNA

Azkeneko siniskaiaz geiago: Inpernua, Garbitokia ta Zerua.

G. *Inpernua, zer da?*

E. Gaizto galduak, Jaungoikoa iku-



si gabe, beti-betiko oñazetan, dauden lekua da inpernua.

G. *Nortzuk joaten dira inpernura?*

E. Oben astuna egin-da Jaungoikoaren asarëan iltzen diranak; joaten dira inpernura.

G. *Garbitoki edo purgatorioa zer da?*

E. Jaungoikoaren grazian, baña beren obenen zoña oso ordaindu gabe iltzen diranen animak joaten diran lekua da Garbitoki edo Purgatorioa.

G. *Zertarako joaten dira animak Garbitokira?*

E. An izugarizko oñazetan garbituak izateko, joaten dira animak Garbitokira.

G. *Lagundu al dizaiekegu Garbitokiko animai?*

E. Lagundu dizaiekegu, Garbitokiko animai otoitz, barkapen, limosna ta, gañerako egintza onen bidez, Meza Donearen bitartez, batez ere.

G. *Ezaguerarik ez dutenak, Bataio gabe ilezkeru, nora joaten dira?*

E. Ezaguerarik ez dutenak, Bataio gabe ilezkeru, umeen linbora joaten dira; an zeruko zorion eta inpernuko zorigaitzik gabe izateko.

G. *Zerua zer da?*



E. Jaungoikoa ikusiaz ta maitatuaz, beti-betiko atsegiñetan, batere gaitzikan gabe zoriondunak bizi diran tokia da zerua.

G. *Nortzuk joaten dira zerura?*

E. Jaungoikoaren grazian iltzen diranak joaten dira zerura.

### Kredoaren azkenaldea.

G. *Zer esan nai du, «Betiko bizitzak»?*

E. Emengo, bizitza onen ondorean, bein ere bukatuko ez dan bizitza, izango degula, esan nai du «betiko bizitzak».

G. *Nolakoa da, betiko bizitza?*

E. Betiko bizitza, onentzat, zorionekoa izango da beti zeruan, eta gaiztoentzat, zorigaiztokoa beti, inpernuan.

G. *Inpernura ez joateko, ta zerua iristeko, zer egin bear degu?*

E. Inpernura ez joateko, ta zerua iristeko, Jaungoikoaren Legeko aginduak, gorde bear ditugu.

G. *Zer esan nai du, Kredoko «Amen» azken-itzak?*

E. Kredoko «Amen» azken-itzak, «olaxe da», esan nai du.

G. *Kredoaren siniskaiez gañera, beste ezer, sinisten al dezuz?*

E. Bai jauna, Kredoaren siniskaiez gañera, Liburu Doneetan dagon guztia, eta



Jaungoikoak, bere Elizari agertu diona, sinisten det.

G. *Idazti edo Liburu Doneak, zer dira?*

E. Idazti (edo Liburu) Doneak, Espiritu Santuaren laguntzaz, idatzitako, Lege Zaar eta Beriko, liburuak dira.

G. *Zer da, Liburu Doneetan dagona, ta Jaungoikoak, bere Elizari agertu diona?*

E. Liburu Doneetan dagon, eta Jaungoikoak bere Elizari, agertu dionaren galderik, ez egin neri, ezjakiña naiz-ta; baditu jakintsuak, Ama Eliza Doneak; aiek erantzungo dizute.







Arantzazuko Ama Birjiña





## BIGAREN LAURDENA

ZER ESKARI EGIN BEAR DAN ETA  
AMA ELIZA DONEAREN OTOITZAK

XXII IKASKIZUNA

G. *Ea esazu «Aitagurea».*

E. Aita gurea, zeruetan zaudena: santifikatua izan bedi zure izena[ betor gugana zure erreinua[ egin bedi zure borondatea zeruan bezela luñean ere. Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia[ barka zazkiguzu gure zorak, guk geren zordunai barkatzen diegun bezela[ ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen[ baidikan libra gaitzazu gaitzetik. Amen.

G. *«Aitagurea» nork esan zuan?*

E. *«Aitagurea», Jesukristok esan zuan.*

G. *Zertarako esan zuan?*



E. Guri, eskaria edo otoitza egiten, erakusteko; esan zuan Jesukristok «Aitagurea».

G. *Otoitza-egitea zer da?*

E. Jaungoikoagana biotza jaso; ta mesedeak eskatzea da otoitz-egitea.

G. *Zeinbat eratakoak dira otoitzak?*

E. Bi eratakoak dira otoitzak: gogo utsezkoak eta aozkoak.

G. *Gogo utsezko otoitza, zer da?*

E. Itzik gabe, oroimenez, adimenez eta biotzez egiten dana; da gogo utsezko otoitza.

G. *Aozko otoitza zer da?*

E. Itzez, «Aitagurea» esaten danean bezela, egiten dana; da aozko otoitza.

G. *Otoitza nola egin bear da?*

E. Afetaz, apal, uste osoz eta iraunkiro; egin bear da otoitza.

G. *Otoitza saritan egin bear al da?*

E. Jaungoikoak ala agintzen dualako; ta naiz goi-ondasunak, naiz lufekoak, iristeko, bearezkoa dalako; otoitza saritan egin bear da.

### XXIII IKASKIZUNA

#### «Aitagurea»: Deia.

G. *Zein da otoitz guztietan onena?*

E. Otoitz guztietan onena, «Aitagurea» da.



G. *Zergatik da «Aitagurea» otoitz guztietan onena?*

E. Apostoluak eskatuta Jesukristok berak esan zualako, da «Aitagurea» otoitz guztietan onena.

G. *Zeinbat zati ditu «Aitagureak»?*

E. Dei bat eta goimaitasunari dagozkion zazpi eskabide ditu «Aitagureak».

G. *Zertarako asten dezuz otoitz au «Aita gurea zeruetan zaudena» esanaz?*

E. Biotza Jaungoikoagana jaso ta Berari apal eta uste osoz eskatzeko, asten degu otoitz au «Aita gurea zeruetan zaudena» esanaz.

G. *«Aitagurea» esatean norekin itz-egiten dezuz?*

E. «Aitagurea» esatean, Jaungoiko gure Jaunarekin itz-egiten det.

G. *Zergatik deitzen diogu Jaungoikoari «gure Aita»?*

E. Guztiok bere semeak geralako deitzen diogu Jaungoikoari «gure Aita».

G. *Zergatik esaten degu «zeruetan zaudena»?*

E. Jaungoikoa toki guztietan egon arian, zerruan, batez ere, dagoelako esaten degu «zeruetan zaudena».

#### XXIV IKASKIZUNA

### «Aitagurea»: Eskabideak

G. *Zer eskatzen degu «santifikatua izan bedi zure izena» esatean?*

E. Jaungoikoaren izena ezagutua ta goratua izan dedila, eskatzen degu, «santifikatua izan bedi zure izena» esatean.



G. *Zer eskatzen degu «betor gugana zure eřeinua» esatean?*

E. Agindu dezala Jaungoikoak gure animetan orain bere graziaren bitartez eta gero zoriona eman dizzigula, eskatzen degu «betor gugana zure eřeinua» esatean.

G. *Zer eskatzen degu, «egin bedi zure borondatea zeruan bezela laurėean ere» esatean?*

E. Zorionekoak zeruan egiten duten bezela, guk ere emen bean Jaungoikoak nai duana egin dezagula, eskatzen degu, «egin bedi zure borondatea zeruan bezela lufėean ere» esatean.

G. *Zer eskatzen degu «emaiguzu gaur gure eguneroko ogia» esatean?*

E. Gorputzarentzat berari dagokion janaria ta animarentzat grazia ta Sakramentuak eman dizazkigula, eskatzen degu, «emaiguzu gaur gure eguneroko ogia» esatean.

G. *Zer eskatzen degu, «barka zazkiguzu gure zořak guk geren zordunai barkatzen diegun bezela» esatean?*

E. Samindu gaituztenai edo gaizkiren bat egin digutenai guk barkatzen diegun bezela, Jaungoikoak ere gure obenak barka dizazkigula, eskatzen degu «barka zazkiguzu gure zořak guk geren zordunai barkatzen diegun bezela» esatean.



G. *Zer eskutzen degu «ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen» esatean?*

E. Obena egiñazten diguten gogorapen gaizto ta zirikalldiai leku ematen Jaungoikoak utzi ez gaitzala, eskatzen degu, «ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen» esatean.

G. *Zer eskatzen degu «libra gaitzazu gaitzetik» esatean?*

E. Gorputz eta animaren gaitz eta galbide guztietatik onez atera gaitzala, eskatzen diogu Jaungoikoari, «libra gaitzazu gaitzetik» esatean.

G. *Zer esan nai du «Aitagureko» «Amen» itzak?*

E. Aitagureko «Amen» itzak, «Olaxe izan dedila» esan nai du.

#### XXV IKASKIZUNA

#### «Aguñ Maria»: «Salve'a»

G. *Zein otoitz egiten diozu Andre Mariari?*

E. «Agur Maria» ta *Salve'a*, batez ere, esaten dizkiogu Andre Mariari.

G. *Ea esazu «Aguñ Maria».*

E. Agur, Maria, graziaz betea: Jau-na da zurekin] bedeinkatua zera zu andre guztien arte:an] eta bedeinkatua (da



zurre sabeleko frutua Jesus. Santa Maria, Jaungoikoaren Ama, eřegutu ezazu gu pekatarioen alde ĩorain eta gure erio tzeke orduan. Amen.

G. *Ea esazu Salve'a.*

E. Agur, Eřegiņa, Ama eřukiořa: gure bizi, gozo ta itxaropena, agur! Zurre deiez gaude Ebaren ume erbeste- tuok: zuri aiezka, antsiz ta negařez ne- gař-eři onetan. Ea, bada, itzuli itzazu gure bitarteko on ořek, itzuli gugana zurre begi eřukitsu oiek, eta erbeste onen ondoren erakus zaiguzu Jesus, zu- re sabeleko Seme bedeinkatu ori. O Biozpera! O Eřukior! O Maria Birjin gozoa! Otoitz egizu gure alde, Jaungoi- koaren Ama Done ořek, Jesukristo gu- re Jaunaren aginduak irabaz ditzagun. Amen.

#### XXVI IKASKIZUNA

**Agur Maria ta Salbeaz geiako: Aigeru Do- neai Otoitza: Gloria.**

G. *Noren itzak dira «Agur Maria» osotzen dutenak?*

E. Gabriel Goi-aingeruak eta Isabel Doneak



Andre Mariari esandako itzak eta gañera, Ama Eliza Doneak geroago erantsitako batzuek dira «Agur Maria» osotzen duten itzak.

G. *Nork esan zuan Salbea?*

E. Ama Eliza Doneak dauka beretzak arturik Salbea.

G. *«Agur Maria» ta Salbea zertarako esaten dituzu?*

E. Andre Maria Ama Birjiñari laguntza eskatzeko esaten ditugu «Agur Maria» ta Salbea.

G. *Aingeruai ta zeruko Doneai ere otoitz egin bear al zaie?*

E. Bai jauna, Aingeruai ta zeruko Doneai ere, gure bitartekoak dira-ta, otoitz egin bear zaie.

G. *Zein aingeruri, batez ere, izan bear diogu berarizko jaiera?*

E. Bakoitzak bere Aingeru Zaitzaleari izan bear dio berarizko jaiera, ta egu-nero laguntza eskatu.

G. *Noren izenean egin bear ditugu gure otoitz guztiak?*

E. Jesukristoren izenean egin bear ditugu gure otoitz guztiak.

G. *Zergatik bukatzen ditugu gure otoizak Gloria esanaz?*

E. Irutasun guztiz Donea goratzeko, bukatzen ditugu gure otoizak, *Gloria* esanaz.

G. *Ea esazu "Gloria"*



E. Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto. Sicut erat in principio et nunc et semper et in saecula saeculorum. Amen.

G. *Ea esazu "Gloria" euskeraz.*

E. Aintza Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari. Asieran zan bezelaxe, orain eta beti, gizaldi ta gizaldietan. Amen.







Loiolako Inazio Donea





## IRUGAREN LAURDENA

---

ZER EGIN BEAR DAN:

JAUNGOIKOAREN ETA ELIZAREN AGINDUAK

---

XXVII IKASKIZUNA

**Jaungoikoaren aginduak aundizka**

G. *Zein dira Jaungoikoaren le-  
geko aginduak?*

E. Jaungoikoaren Legeko aginduak  
amar oek dira:

Lenengoa, Jaungoikoa maiteen izatea;  
Bigarrena Jaungoikoaren izena alperik,  
ez aotan artzea;

Irugarrena, jai-egunak jai egitea;

Laugarrena, gurasoak aintzat eukitzea;

Boskarrena, iñor ez iltzea;

Seigarrena, aragikeririk ez egitea;

Zazpigarrena, ez ostutzea;



Zortzigarrena, gezurézko testigotzarik ez egin eta gezurik ez esatea;

Bederatzigarrena, besteren senar edo emazterik ez nai izatea;

Amargarrena, oker-bidez besteren ondasunik ez nai izatea.

Amar agindu oek bitan biltzen dira: Jaungoikoa beste ezer baño maiteago ta gure lagun urkoa geren buruak bezela maite izatea. Amen.

*G. Zer dago Jaungoikoaren Legeko aginduetan?*

E. Jaungoikoaren Legeko lenengo iru aginduetan, Jaungoikoarekiko ditugun eginkizunak daude: ta lagun urkoarekiko ditugunak, beriz, gañerako zazpietan.

#### XXVIII IKASKIZUNA

**Jaungoikoaren aginduetaz geiago: Jaungoikoarekiko ta geidiarekiko eginkizunak.**

*G. Zeintzuk eginkizun ditugu Jaungoikoarekiko?*

E. Beste ezer baño Bera maiteago izateko eginkizuna degu Jaungoigoarekiko.



G. *Zer da Jaungoikoa beste ezer baño maiteago izatea?*

E. Jaungoikoari naigaberik eman baño gauza guztiak galdu naiago izatea, da Jaungoikoa beste ezer baño maiteago izatea.

G. *Zeintzuk eginkizun ditugu lagun urkoarekiko?*

E. Jaungoikoagatik geren buruak bezelaxe bera maite izateko eginkizuna degu lagun urkoarekiko.

G. *Zein da gure lagun urkoa?*

E. Gizon guztiak dira gure lagun urko: baita gure etsaiak ere.

G. *Nola maite izango ditugu gure lagun urkoak geren buruak bezelaxe?*

E. Aiek guri egitea nai genduken on guztia guk berai egiñaz, maite izango ditugu lagun urkoak geren buruak bezelaxe.

G. *Nola maite izango ditugu gure lagun urkoak Jaungoikoagatik?*

E. Gerok bezelaxe, guztiak Jaungoikoaren semeak, Jesukristo gure Jaunaren odolaz erosiak, eta guztiak zeru baterako jaioak diralako maite izanaz, maite izango ditugu lagun urkoak Jaungoikoagatik.

G. *Nork maite du Jaungoikoa?*

E. Bere aginduak betetzen dituanak maite du Jaungoikoa.

G. *Jaungoikoaren Legeko aginduak bete al ditzakegu?*

E. Bai jauna, Jaungoikoaren Legea betetzeko bear dan laguntza ez dio Berak, egoki eskatuzkero, iñori ukatzen, eta oregatik Jaungoikoaren Legeko aginduak bete ditzakegu.



G. *Jaungoikoaren legeko aginduak betetzeko, eragozpenik garaitu bear al da?*

E. Jaungoikoaren aginduak betetzeko, diabruaren zirikaldiak garaitu bear dira.

G. *Zirikaldiak zer dira?*

E. Animaren etsaiak pekaturako ematen dizkiguten eraginkadak dira zirikaldiak.

G. *Zein dira gure animaren etsaiak?*

E. Iru dira gure animaren etsaiak: diabrua, mundua ta aragia.

G. *Nola aspiratzen da diabrua?*

E. Otoitzaren eta apaltasunaren bitartez garaitzen da diabrua.

G. *Nola aspiratzen da mundua?*

E. Munduzale gaizto ta biurriakandik alde egiñaz, eta aien afokeri ta aundiusteak oinperatuaz, garaitzen da mundua.

G. *Nola aspiratzen da aragia?*

E. Gure griña txarrek ilduratu ta eziaz, garaitzen da aragia.

G. *Jaungoikoaren Legeko aginduak betetzeko beartuak al gaude?*

E. Bai jauna, Jaungoikoaren Legeko agindu guztiak eta bakoitza betetzeko beartuak gaude, ta ez betetzea pekatua da.

#### XXIX IKASKIZUNA

### Obéna

G. *Obéna edo pekatua zer da?*

E. Jaungoikoaren Legean debeka-



turik dagon zerbait, norik bere gogoz esan, egin, gogoratu, nai izan, edo agindurik dagona ez egitea da obéna edo pekatua.

G. *Zeinbat eratakoak dira obénak?*

E. Obénak bi eratakoak dira: astunak eta ariñak.

G. *Zer da obén astuna?*

E. Jaungoikoaren Legean debekatutako zerbait, ezaguera argiz ta gogo osoz, ajolazko gaietan, esan, egin, gogoratu, nai izan, edo agindurik dagona ez egitea da obén astuna.

G. *Zergatik deritzaio eriozkiña oben astunari?*

E. Graziatzko bizia animari kentzen diolako, deritzaio eriozkiña oben astunari.

G. *Oben ariña zer da?*

E. Jaungoikoaren legean debekatutako zerbait, ajola gutxiko gaietan, edo ta bestela ajolazkoetan ezaguera argi ta gogo osorikan gabe, esan, egin, gogoratu, nai izan, edo agindurik dagona ez egitea da oben ariña.

G. *Eta zergatik deritzaio barka-éfaza oben ariñari?*

E. Érez egin eta érez barkatzen dalako, deritzaio barka-éfaza oben ariñari.



G. *Zer da gaitzoimena edo griña txara?*

E. Bein eta beriz gaizki egiñaz sortzen dan, eta obenetara makurtzen gaituan oitura gaiztoa da gaitzoimen edo griña txara.

G. *Griña txar nagusiak zeinbat dira?*

E. Griña txar nagusiak zazpi dira; Afokeria, zekenkeria, aragikeria, asafezeria, janedankeria, bekaitza ta nagikeria.

G. *Zergatik deritzaie nagusiak zazpi griña txar oiei?*

E. Gañerako griña txar ta oben gustien sustriak bezela diralako, deritzaie nagusiak zazpi griña txar oiei.

G. *Zer onomen edo birtute daude zazpi griña txar oiek azpiratzeko?*

E. Zazpi onomen edo birtute daude, zazpi griña txar oiek azpiratzeko: afokeriarentzat apaltasuna, zekenkeriarentzat eskuzabaltasuna, aragikeriarentzat garbitasuna, asafezeriarentzat eramana, janedankeriarentzat neurriztasuna, bekaitzarentzat maitasuna, ta nagikeriarentzat bizkortasuna.

### XXX IKASKIZUNA

#### JAUNGOIKOAREN LEGEKO LENENGO AGINDUA

**Jaungoiko, Aingeru, Done, Irudi, ta gorpuzkiñenganako agurra.**

G. *Zein da Jaungoikoaren Legeko lenengo agindua?*

E. Jaungoikoaren Legeko lenengo agindua auxe da: **Jaungoikoa maiteen izatea.**

G. *Zer agintzen digu Jaungoikoak bere Legeko lenengo aginduan?*

E. Egiazko Jaungoikotzat Bera Baka-



fik ezagutu ta maitatzeko ta beragan bene benetan sinistu ta uste guztia izateko, agintzen digu Jaungoikoak bere lenengo aginduan.

G. *Zertara beartzen gaitu oñezaz gainera Jaungoikoak bere lenengo aginduan?*

E. Berari bakarik gorputz eta animako lots-itzalik aundienaz agur egin eta bere mirabe izatera, beartzen gaitu Jaungoikoak bere lenengo aginduan.

G. *Zer debekatzen digu lenengo aginduak?*

E. Jainkoaizunkeria, siniskeria, doneaustea, ta erelijoaren kaltezko beste oben guztiak debekatzen dizkigu lenengo aginduak.

G. *Jainkoaizunkeri zer da?*

E. Gezurko jainkoak gurtu ta sinistea da jainkoaizunkeria.

G. *Siniskeria zer da?*

E. Edozein gauza naiz egintzak goi-kemenen bat, baduala uste izatea da siniskeria.

G. *Doneauste edo sakrilejioa zer da?*

E. Jaungoikoari eskeñitako zerbait edo norbait bear bezela ez erabiltzea, esate baterako, Sakramenturen bat gaizki artzea da doneaustea edo sakrilejioa.

G. *Zer geiago debekatzen digu lenengo aginduak?*

E. Sinisgogorkeria, siniste-austea, Jaungoikoaganako etsaikeria, kristau-ikasbidea ez jakitea, irakurtze gaiztoak eta sinismenaren kaltegarri diran beste obenak ere debekatzen dizkigu lenengo aginduak.



G. *Sinisgogorkeriaren sustrairik ezagunenak zein dira?*

E. Aragikeria, afokeria ta gure Kredoko egiak ondo ez jakitea dira sinisgogorkeriaren sustrairik ezagunenak.

G. *Eta pekatu al da liburu ta eguneroko oñi gaiztoak irakurtzea?*

E. Bai jauna, pekatu da liburu ta eguneroko oñi gaiztoak irakurtzea, ta saltzea, erostea ta gordetzea.

G. *Itxaromenean eta goimaitasunean utsen bat egiten dutenak nolako obena egiten dute?*

E. Itxaromenean eta goimaitasunean uts egiten dutenak ere lenengo aginduaren kaltezko obena egiten dute.

G. *Agur egin al dizaiekegu Andre Mariari, Aingeruai ta Santuai?*

E. Bai jauna, agur egin dizaiekegu ta egin bear diegu, Jaungoikoaganako ditugun bitartekoak diranez, Andre Mariari, Aingeruai ta Santuai.

G. *Zer dira aldarean dauden irudiak?*

E. Jesukristo gure Jaunaren, Andre Mariaren, eta zeruetan dauden Doneen antz batzuek dira aldarean dauden irudiak.

G. *Zertarako daude aldarean irudiak?*

E. Aien bitartez Jesukristo gure Jauna, Andre Maria, ta zeruetan dauden Doneak gogora ditzagun, eta aien antz-irudiak diranezkeru, agur egin dizaiegun, daude aldarean irudiak.

G. *Agur egin bear al diegu Santuen gorpuzkiñai ere?*



E. Bai jauna Santuen gorpuzkiñai ere agur egin bear diegu.

G. *Baña egin al dizaiekegu agur gorpuzkin ta irudi utsai?*

E. Bai jauna, gorpuzkin ta irudi utsai ere agur egin dizaiekegu ta egin bear diegu: gorpuzkin ta irudiai egindako agufa, Jesukristori berari, Andre Mariari ta Doneai egiten zaie.

### XXXI IKASKIZUNA

**Jaungoikoaren Legeko bigarren agindua: Jaungoikoaren izena alperik ez aotan artzea.**

G. *Zein da Jaungoikoaren Legeko bigarren agindua?*

E. Jaungoikoaren Legeko bigarren agindua auxe da: **Jaungoikoaren izena alperik ez aotan artzea.**

G. *Zer debekutzen du bigarren aginduak?*

E. Jaungoikoaren izena begirune-lotsarik gabe aitatzeta, biraoak esatea, ta alperik zin-egitea, debekutzen du bigarren aginduak.

G. *Biraoa zer da?*

E. Jaungoikoarentzat, Andre Maria-arentzat eta Santuentzat itsuskeriren bat esatea da biraoa, ta, berez, oben izugafia.

G. *Zin egitea zer da?*

E. Esaten degunaren eta inori agin-



tzen diogunaren testigutzat Jaungoikoa jartzea, da zin egitea.

G. *Alperik zin egitea zer da?*

E. Egi, bear edo zuzentasun gabe Jaungoikoa testigutzat artzea, da alperik zin egitea.

G. *Zer da egi gabe zin egitea?*

E. Gezurtzat daukagunari, zin egiñaz eustea, da egi gabe zin egitea.

G. *Zer da bear gabe zin egitea?*

E. Ezerezkeriz edo ojala gutxiko zerbaitegatik Jaungoikoa testigutzat ekartzea, da bearik gabe zin egitea.

G. *Zer da zuzentasun gabe zin egitea?*

E. Gauza oker edo txarren bat, esate baterako, norbaiti kalteren bat egiteko asmoari zin egiñaz eustea, da zuzentasun gabe zin egitea.

G. *Alperik zin egitea obena al da?*

E. Alperik zin egitea obena da ta gezurzetan bada, oben astuna beti.

G. *Zer da on, alperik ez zin egiteko?*

E. Kristok erakusten digun bezela, «bai» edo «ez» esatea da on, alperik ez zin egiteko.

G. *Zertara beartzen gaitu bigarren aginduak?*

E. Jaungoikoaren izena aintzakotzat eukitzera ta Berari egindako eskeintzak eta, zin egiñaz, iñori aginduak betetzera, beartzen gaitu bigarren aginduak.

**Irugarren agindua: Jai egunak, jai egitea.**

G. *Zein da Jaungoikoaren Legeko irugarren agindua?*



E. Jaungoikoaren Legeko irugaŕen agindua auxe da: **Jai egunak jai egitea.**

G. *Zer agintzen digu irugaŕen aginduak?*

E. Elizkizunen bitartez Jaungoikoa goratzeko, ta igande ta jaiero Meza Donea entzuteko, agintzen digu, irugaŕen aginduak.

G. *Zer debekutzen digu irugaŕen aginduak?*

E. Igande ta jai-egunetan bear gabe lanean jardutea, debekutzen digu irugaŕen aginduak.

G. *Zertarako eragotzi du Jaungoikoak Igande ta Jai-egunetan lan egitea?*

E. Bera Elizkizunetan agurtu, gure anima onoimez apaindu ta gorputzari atsedena amateko ardura obeto artu dezagun, debekatu du Jaungoikoak Igande ta Jai-egunetan lan egitea.

G. *Nola beteko du ondoen kristauak, Jaungoikoa agurtutzeko ta bere anima onoimenez apaintzeko duan eginkizuna?*

E. Bere efiko Elizara joanaz, ta Jaungoikoarekiko ta lagun urkoarekiko egintza onak egiñaz, beteko du kristauak ondoen, Jaungoikoa agurtutzeko ta bere anima onoimenez apaintzeko duan eginkizuna.

G. *Debekatuak al daude Igande ta Jai-egunetan joku ta jostatzeak?*

E. Ez jauna, gaiztoak ez badira ez daude debekatuak Igande ta Jai-egunetan joku ta jostatzeak.



## XXXII IKASKIZUNA

**Laugarén agindua: Gurasoak aintzat eukitzea.**

*G. Zein da Jaungoikoaren Legeko laugarén agindua?*

E. Jaungoikoaren Legeko laugarén agindua auxe da: **Gurasoak aintzat eukitzea.**

*G. Nork dauzka gurasoak aintzat?*

E. Gurasoen esanak egiten dituztenak eta berai laguntzen eta begirune-lotsa izaten dietenak, dauzkate gurasoak aintzat.

*G. Gurasoez beste zeintzuk dira aintzat euki bear ditugunak?*

E. Gurasoez gañera zafago ta nagusiagoak eta agintariak dira aintzat euki bear ditugunak.

*G. Zer debekatzen digu laugarén aginduak?*

E. Gure gurasoak, Elizgizonak eta gañerako agintariak aintzat ez artzea ta beren esanak ez egitea, debekatzen digu laugarén aginduak.

*G. Eta laugarén agindu onetan ez al da beste eginkizunik sartzen?*

E. Bai jauna, laugarén agindu onetan sartzen dira, nagusiak mendekoekin, eta gurasoak beren seme-alabakin dituzten eginkizunak ere.

*G. Zein da, gurasoak seme-alabakiko duten eginkizuna?*

E. Seme-alabak arduraz azi ta beren garaian bizibidea egokitzea da gurasoak seme-alabakiko duten eginkizuna.

*G. Zer erakutsi bear diete batez ere, gurasoak beren umeai?*



E. Kristau-ikasbidea, batez ere, erakutsi bear diete gurasoak beren umeai.

**Boskañen agindua: Iñor ez il.**

G. *Zein da Jaungoikoaren Legeko boskañen agindua?*

E. Jaungoikoaren Legeko boskañen agindua Iñor ez iltzea da.

G. *Zer agintzen digu boskañen aginduak?*

E. Iñoren kaltean ezer ez egin, ez esan, eta ez nai izateko, agintzen digu boskañen aginduak.

G. *Zer besterik agintzen digu boskañen aginduak?*

E. Lagun urko guztiak, naiz etsaiak izan, maite izan, ta iñori egindako kalteak ordaintzeko, agintzen digu boskañen aginduak.

G. *Zer debekatzen digu boskañen aginduak?*

E. Nork bere burua edo beste iñor iltzea, *duelo* deritzan buruka egitea, iñor zauritu edo jotzea, Moskortzea, madarikatzea, ta iñori gaizpidea ematea, debekatzen digu boskañen aginduak.

G. *Zer da madarikatzea?*

E. Nork bere buruari edo beste iñori gaitzen bat opa izatea, da madarikatzea, «Bertan ilko al aiz» esatea bezela.

G. *Zer da gaizpidea?*

E. Obenera garamazkian edozein itz edo egite txar da gaizpidea?



## XXXIII IKASKIZUNA

**Seigarañen agindua: Aragikeririk ez egitea.**

G. *Zein da Jaungoikoaren Legeko seigarañen agindua?*

E. Jaungoikoaren Legeko seigarañen agindua **Aragikeririk ez egitea** da.

G. *Zer agintzen digu seigarañen aginduak?*

E. Ditugun gogapen, itz eta egiteetan garbiak eta kutsu gabeak izateko, agintzen digu seigarañen aginduak.

G. *Zer debekatzen digu seigarañen aginduak?*

E. Gogapen, itz-egite, begiratze, irakurtze ta jolasketa lizun eta itsusiak debekatzen dizkigu seigarañen aginduak.

G. *Zer bear da aragikerietatik iges egiteko?*

E. Erorbideetatik uruti ibili, otoitzean jardun, Sakramentuak maiz artu ta Andre Maria Birjiñari jaiera aundia izan bear da aragikerietatik iges egiteko.

**Zazpigararen agindua: Ez ostutzea.**

G. *Zein da Jaungoikoaren Legeko zazpigararen agindua?*

E. Jaungoikoaren Legeko zazpigararen agindua, **Ez ostutzea** da.

G. *Zer agintzen digu zazpigararen aginduak?*

E. Iñori bere gauzarik ez kentzeko, ta,



bere jabeak nai ez duala besterenik ez eukitzeko, agintzen digu zazpigarén aginduak.

G. *Zer debekutzen digu zazpigarén aginduak?*

E. Iñori bere ondasunetan kalte egitea debekutzen digu zazpigarén aginduak.

G. *Eta iñori bere gauzen bat kendu, naitz ondasunetan kalte egiten diotenak, zertara daude beartuak?*

E. Kendutakoak beñiz jabeari biurtzera, ta egindako kalte guztiak lenbailen ordaintzera daude beartuak, iñori bere ondasunetan kalte egiten diotenak.

#### XXXIV IKASKIZUNA

**Zortzigarén agindua: Gezurézko testigutza ez egin eta gezurik ez esatea.**

G. *Zein da Jaungoikoaren Legeko zortzigarén agindua?*

E. Jaungoikoaren Legeko zortzigarén agindua auxe da: **Gezurézko testigutzarik ez egin eta gezurik ez esatea.**

G. *Zer agintzen digu zortzigarén aginduak?*

E. Bear dan garaian eta tokian egia esateko, ta lagun urkoaren egiteak, al dan guztian ontzat artzeko, agintzen digu zortzigarén aginduak.



G. *Zer debekutzen digu zortzigañen aginduak?*

E. Gezuñezko testigutza egitea, iñor gezuñetan salatzea, maxeatzea, ixilkaiak zabaltzea, eñezegi iñor gaizto egitea ta gezuña esatea debekutzen digu zortzigañen aginduak.

G. *Zer da gezuña esatea?*

E. Sinistarazi naiaz, ala ez dana, jakiñaren gañean iñori esatea, da gezuña esatea.

G. *Zeri deritzaio gezuñezko testigutza?*

E. Auzitegian testigu batek esandako gezuñari deritzaio gezuñezko testigutza.

G. *Zer da gezuñetan salatzea?*

E. Ez daukan akatz edo egin ez duan gaizkiren bat norbaiti ezartzea, da gezuñetan salatzea.

G. *Zer da maxeatzea?*

E. Lagun urkoaren utsune ta utsegiteak beafikan gabe zabaltzea da maxeatzea.

G. *Zer da, eñezegi iñor gaizto egitea?*

E. Artarako biderik eman gabe, lagun urkoaren egiteak gaiztotzat artzea, da eñezegi iñor gaizto egitea.

G. *Besteri kendutako izen ona biurtzera beartuak al gaude?*

E. Besteri kendutako izen ona beñiz biurtzera beartuak gaude, bai gezuñetan salatu degunean, baita ixilikako bere gaizkiren bat, naiz egia izan, zabaldu degunean ere.



**Bederatzi ta amargañen agindua: Besteren senar edo emazte ta ondasun-zale ez izatea.**

*G. Zein da Jaungoikoaren Legeko bederatzigaren agindua?*

E. Jaungoikoaren Legeko bederatzigaren agindua auxe da: **Besteren senar edo emazterik ez nai izatea.**

*G. Zer debekutzen digu bederatzigaren aginduak?*

E. Gurari itsusi guztiak debekutzen dizkigu bederatzigaren aginduak.

*G. Zein da Jaungoikoaren Legeko amargañen agindua?*

E. Jaungoikoaren Legeko Amargañen agindua auxe da: **Oker-bidez besteren ondasunik ez nai izatea.**

*G. Zer debekutzen digu amargañen aginduak?*

E. Bidegabezko aberastu-naia debekatzten digu amargañen aginduak.

#### XXXV IKASKIZUNA

**Ama Eliza donearen aginduak.**

*G. Ea esaitzu Ama Eliza Donearen aginduak.*

E. Ama Eliza Donearen aginduak bost dira:



Lenengoa, Igande ta jai-egunetan Meza osoa entzutea;

Bigarrena, Aitorkeia, urtean bein gutxienez, egitea, ta oñezaz gañera iltzeko ariskuan arkitzean, eta Jaunartu baño len, baldin oben astunean bagaude;

Irugarrena, Pazko-aldian gutxienez, jaunartzea:

Laugarrena, Ama Eliza Doneak agintzen duanetan aragi-uzte ta barau egitea;

Boskarrena, oi danez, amarenak eta asikiñak Elizari ematea.

G. *Nundik du Elizak bere aginduak jañi ta aldatzeko eskua?*

E. Jesukristogandik du Elizak bere aginduak jañi ta aldatzeko eskua.

G. *Zertarako dira Ama Eliza Donearen aginduak?*

E. Jaungoikoaren Legekoak obeto betetzeko dira Ama Eliza Donearen aginduak.

#### XXXVI IKASKIZUNA

**Bat, bi ta irugarren agindua: Meza entzun, aitortu ta jaunartu.**

G. *Zein da Elizaren lenengo agindua?*



E. Elizaren lenengo agindua auxe da: Igande ta jai-egunetan meza osoa entzutea.

G. *Nor daude Meza entzutera beartuak?*

E. Ezaguera duten kristau guztiak, zazpi urte betezkero, daude Meza entzutera beartuak.

G. *Nola entzun bear da Meza?*

E. Meza ari dan tokian, gauza onen bati adi ta arduraz egonaz, esate baterako, naiz gogoz, naiz aoz otoitz egiñaz, entzun bear de Meza.

G. *Igande ta jai-egunetan Mezarik entzuten ez duanak nolako obena egiten du?*

E. Al dezakela, Igande ta Jai-egunetan Mezarik entzuten ez duanak, oben astuna egiten du.

G. *Zein da Elizaren bigarren agindua?*

E. Elizaren bigarren agindua auxe da: Aitorketa, urtean bein gutxienez, egitea, eta ordez gñera iltzeko ariskuan gaudenean, eta jaunartu baño len, baldin oben astunean bagaude.

G. *Zein da Elizaren laugarren agindua?*

E. Elizaren laugarren agindua auxe da: Pazko-aldian gutxienez jaunartzea.

G. *Eta nortzuk daude Jaunartzea ta Aitorketa egitera beartuak*



E. Ezaguera duten kristau guztiak daude Jaunartzea ta Aitorketa egitera beartuak.

G. *Eta Jaunartzea ta Aitorketa bear bezela egiten ez dituanak betetzen al ditu Elizaren bi ta irugañen aginduak?*

E. Jaunartzea ta Aitorketa bear bezela egiten ez dituanak ez du Elizaren bi ta irugañen agindurik betetzen: eta bi gauza oiek gaizki egiñaz, donauzte bi egiten ditu.

G. *Zer egin bear du iltzeko ariskuan dagon kristauak?*

E. Iltzeko ariskuan dagon kristauak aitortu ta jaunartu egin bear du.

G. *Iltzeko ariskuan aitortzeko erariz ez duanak, zer egingo du?*

E. Iltzeko ariskuan aitortzeko erarik ez duana, aitortzeko asmoz maite-damuz damutu bedi.

#### XXXVII IKASKIZUNA

**Laugañen agindua: Aragi-uzte ta barau-egitea.**

G. *Zein da Elizaren laugañen agindua?*

E. Elizaren laugañen agindua auxe da: Ama Eliza Doneak agintzen duanetan aragi-uzte ta barau egitea.



G. *Barau, nola egiten da?*

E. Egunean bein bakafik janaz, egiten da barau.

G. *Eta Barau-eguneko goiz-aratsetan, ezer artu al diteke?*

E. Barau-eguneko goiz-aratsetan, kristau zintzoak oi dutena artu diteke, zalantz eta ezjakin-aldietan apaizari galde egiñ-eta.

G. *Nastu al diteke aragia ta arria barau-egunetan?*

E. Bai jauna, nastu diteke aragia ta arria barau utsa dan egunetan.

G. *Nortzuk daude barau-egiteko beartuak?*

E. Ogei ta bat urte bete ta irurogeitan sartu ez diranak, daude barau-egiteko beartuak.

G. *Eta nolanaiko aitzakiagatik barautzen ez dutenak, nolako obena egiten dute?*

E. Nolanaiko aitzakiagatik barautzen ez dutenak, egun bakoitzeko oben astun bat egiten dute.

G. *Zer debekatsen du aragi-uzteko aginduak?*

E. Aragi-uzteko aginduak, aragia ta aragi-salda artzea debekatsen du, ez ordea arautzak, esnekiak eta koipetan egin-dako jakiak.

G. *Nortzuk daude aragia uzteko beartuak?*

E. Zazpi urtetatik gorako ezagueradun kristauak, daude aragia uzteko beartuak.

G. *Nolako obena egiten dute aragia uzteko agindua austen dutenak?*

E. Aragia uzteko agindua austen dute-



nak, oben astuna egiten dute, agindu ori egunaren buruan austen duten bakoitzean.

### Bulda Santua

G. *Bai al da Españian, egun batzuetan, aragi-uzte ta barau egin beara kentzen duan lege berezirik?*

E. Bada Españian, aragi-uzte ta barau egin beara egun jakiñetan kentzen duan lege berezi bat. Gurutze eta Aragi-bulda.

G. *Zein egun dira buldadunentzat aragia uztekoak?*

E. Garizumako ta Tenporetako ostiralak; Pentekoste- ta Abuztuko Andre Mariaren aureko egunak, eta Gabon aureko larunbata, dira buldadunentzat aragia uzteko egunak. (1).

G. *Zein egun dira buldadunentzat barau-egitekoak?*

E. Garizumako asteazken, ostiral eta larunbatak; Pentekoste- ta Abuztuko Andre Mariaren aureko egunak, eta Gabon-aureko larunbata, dira buldadunentzat barau egiteko egunak. (2).

---

(1) G. *Eta zein egun dira buldarik ez dutenentzat aragia uztekoak?*

E. Urte guztiko ostiralak; Austefe-eguna; Garizumako larunbatak; Tenporetako asteazken eta larunbatak; eta Pentekoste Abuztuko Andre Maria Santu guzti- ta Eguafietako aureko eguna, dira buldarik ez dutenentzat aragia uztekoak.

(2) G. *Eta zein egun dira buldarik ez dutenentzat barau-egitekoak?*

E. Igandeak ez beste, Garizumako egun guztiak; Temporetako asteazken, ostiral eta larunbatak; eta Pentekoste Abuztuko Andre Maria Santu guzti- ta Eguafietako aureko eguna dira buldarik ez dutenentzat barau egitekoak.



G. *Igande ta jaiegunetan aragi-uzte ta barau egin beařik bai-alda?*

E. Igande ta jaiegunetan ez da aragi-uzte ta barau egin beařik, ez eta Larunbat-Santu egunean ere eguerdiazkero.

G. *Zer artu dezakete barau-eguneko gosari ta apari-ariņean Bulda oiek dituztenak?*

E. Aragi, aragi-salda ta ařaia ez beste edozein janari artu dezakete barau-eguneko gosari ta apari-ariņean, Bulda oiek dituztenak.

G. *Zer egin bear da berarizko eskubide oien jabe izateko?*

E. Gurutze eta Aragi-bulda artu, eta ořetarako oi dan limosna eman bear da berarizko eskubide oien jabe izateko.

G. *Beartsuak artu bear al dituzte Buldak, eskubide oiek iristeko?*

E. Beartsuak ez dute aitaturako Bulda oiek artu beařik, aragi-uzte ta barauai dagozkien eskubideak iristeko.

G. *Zertarako da Buldadunak uzten duten ugixto edo limosna?*

E. Bearean dauden Eliza, Seminario, Gaxotegi ta Beartsutegiai laguntzeko izaten da buldadunak uzten duten ugixto edo limosna.

### XXXVIII IKASKIZUNA

**Boskařen agindua: Amařenak eta asikiņak.  
Eřuki-eřintzak.**

G. *Zeinda Elizaren boskařen agindua?*

E. Elizaren boskařen agindua, auxe da: Oi danez amařenak eta asikiņak Elizari ematea.



G. *Zer agintzen digu Elizaren boska-  
ren aginduak?*

E. Elizkizunetarako ta elizgizonen bi-  
zibiderako bear dan laguntza emateko,  
agintzen digu Elizaren boskañen aginduak.

### Eñuki-egintzak.

G. *Zertarako dira eñuki-egintzak?*

E. Gure lagun urkoai anima ta gorpu-  
tzarekiko beañetan laguntzeko, dira eñuki-  
-egintzak.

G. *Zein dira animarekiko eñuki-egintzak?*


E. Animarekiko eñuki-egintzak oek dira;  
Lenengoa, ez dakianari erakustea;  
Bigañena, beañean dagonari burubide onak ematea;  
Irugañena, oker dagonari ondo erakustea;  
Laugañena, gaizki egiñak barkatzea;  
Boskañena, naigabetuak poztea;  
Seigañena, lagun urkoaren utsegiteak asafe gabe  
eramatea;  
Zazpigañena bizi ta ilen alde Jaungoikoari otoitz  
egitea.

G. *Zein dira gorputzarekiko eñuki-egintzak?*


E. Gorputzarekiko eñuki egintzak oiek dira:  
Lenengoa, eri daudenak ikustera joatea;  
Bigañena, gose diranai edaten ematea;  
Irugañena, giltzapean daudenak ikustera joatea;  
Boskañena, jantzirik ez duana jaztea;  
Seigañena, ilai luña ematea.

G. *Eta Eñuki-egintza oiek, noiz dira beañezkoak?*

E. Geide edo Lagun urkoaren estualdi aun-  
dietan, dira beañezkoak eñuki-egintzak.







# LAUGAÑEN LAURDENA

---

ARTU BEAR DIRANAK

---

XXXIX IRASKIZUNA

**Sakramentuak aundizka.**

G. *Zeinbat dira Ama Eliza Donearen Sakramentuak?*

E. Ama Eliza Donearen Sakramentuak zazpi dira:

Lenengoa, Bataioa;

Bigañoa, Sendotza;

Irugañoa, Eukaristia;

Laugañoa, Aitortza;

Boskañoa, Azken-igurtzia;

Seigañoa, Apaizgintza;

Zazpigañoa, Ezkontza.

G. *Sakramentuak zer dira?*

E. Jesukristo gure Jaunak bere gra-



zia ta onoimenak guri emateko jaří zitu-  
 tuan ezaugaří ageriak dira Sakramen-  
 tuak.

G. *Sakramentuak zergatik dira ezaugaříak?*

E. Ematen duten grazia adirazten dutelako,  
 dira ezaugaříak, Sakramentuak.

G. *Sakramentuak artzen dituzten guztiak, ar-  
 tzen al dute grazia ere?*

E. Ez jauna, Sakramentuak artzen dituzten  
 guztiak, ez; bear bezela artzera dijoazenak ba-  
 kařík artzen dute grazia.

G. *Zein dira zeruratzeko Sakramen-  
 turik beařenak?*

E. Zeruratzeko Sakramenturik beař-  
 enak bi dira: Bataioa ta Aitortza.

G. *Norentzat dira beařezkoak Bataioa  
 ta Aitortza?*

E. Bataioa, guztiontzat da naitanaiez-  
 koa; Aitortza, beřiz, bataiatuzkero oben  
 astunen bat egin dutenentzat.

G. *Zein Sakramentu dira bein baizik artu ezin  
 ditezkenak?*

E. Bein baizik artu ezin ditezken Sakramen-  
 tuak iru dira: Bataioa, Sendotza ta Apaizgintza.

G. *Zergatik ez dira Bataioa, Sendotza ta Apaiz-  
 gintza bein baizik artzen?*

E. Graziaz gañera, ezaugaří kendu-ezin bat  
 animan ezartzen dutelako, ez dira Bataioa, Sen-  
 dotza ta Apaizgintza bein bestetan artzen.



**Sakramentuez geiago: Grazia ta onoimenak.**

G. *Grazia zer da?*

E. Jesukristo gure Jaunak guretzat irabazi-ta, zeruratzeko ematen zaigun zerutar emaitza da grazia.

G. *Zenbat eratakoak dira graziak?*

E. Bi eratakoak, batez ere, dira graziak; donetzalea bata ta laguntzaleak besteak.

G. *Zer da grazia donetzalea?*

E. Gizona Jaungoikoaren seme ta zeruaren jabegai egiten duan Jaungoikozko izaki bat da grazia donetzalea.

G. *Zer dira grazia laguntzaleak?*

E. Pekatua utzi ta ona egiteko guztioi Jaungoikoak ematen dizkigun laguntzak dira grazia laguntzaleak.

G. *Grazia laguntzalea beaitezkoa al da?*

E. Grazia Laguntzalea beaitezkoa da: bera gabe ezin dezakegu, ez asi, ez jaraitu, ez bukatu, zerurako on danik ezertxo ere.

G. *Grazia donetzalea beaitezkoa al da?*

E. Zerua iristeko ta gure egintza on guztiak sarigafi ta ordaingai izan ditezen, naitanaiezkoa da grazia donetzalea.

G. *Eta pekatu astunean daudenen egintza onak ez al dira ezertarako gauza?*

E. Pekatu astunean daudenen egintza onak ez dira, ez sarigafi ez ordaingai, baña mesederen at Jaungoikoagandik iristeko gauza dira.



G. *Zein onoimen edo birtute ematen dituzte Sakramentuak grazi donetzalearekin batean?*

E. Jaungoikozko iru onoimen edo birtuteak, sinismena, itxaromena ta goi-maitasuna, batez ere, ematen dituzte Sakramentuak grazi donetzalearekin batean.

G. *Zer da sinismena?*

E. Ikusi ez deguna, Jaungoikoak ala agertu ta Ama Eliza Doneak erakusten digulako, sinistarazten digun onoimen zerutara da sinismena.

G. *Zer da itxaromena?*

E. Jaungoikocaren grazia ta gure egin-tza onen bitartez zerua iritxiko degula usteerazten digun onimen zerutara da itxaromena.

G. *Zer da goi-maitasuna?*

E. Jaungoikoa, beste ezer baño geiago, ta gure lagun urkoa Jaungoikoagatik geren burua bezela maitarazten digun onoimen zerutara da goi-maitasuna.

G. *Jaungoikozko onoimenez gañera beste zein onoimen sortzen dituzte Sakramentuak gure animetan.*

E. Jaungoikozkoaz beste, oitura-onoimenak sortzen dituzte Sakramentuak gure animetan.

G. *Zein dira oitura-onoimenak?*

E. Oitura-onoimen nagusienak, lau dira: Zur-tasuna, zuzentasuna, sendotasuna ta neufiztasuna.



## I ta II Sakramentua: Bataioa: Sendotza.

G. *Zertarako jaia da Bataioa?*

E. Jatorizko obena ta Bataioa artzera datozenak izan dezaken beste edozein obén kentzeko jaia da Bataioa.

G. *Noiz eraman bear dira umeak Elizara bataiatzeko?*

E. Alik lenena eraman bear dira umeak Elizara bataiatzeko.

G. *Eta estualdietan nork bataiatu dezake?*

E. Estualdietan, ezaguera duan edozein gizaseme naiz emakumek bataiatu dezake.

G. *Eta nola bataiatu bear da?*

E. Onela bataiatu bear da: Añari, al dala buru-gañean, ur utsa ixuriaz, ta, bataiatzeko asmoz esanaz, «Nik bataiatzen zaitut Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean».

G. *Zer egitera beartzen da bataiatua?*

E. Jesukristoren sinismenean iraun eta bere Legeko aginduak betetzera beartzen da bataiatua.

G. *Zer uztera beartzen da bataiatzen dana?*

E. Inpernuko etsaia ta bere egintza ta aundike-riak bein betiko uztera beartzen da bataiatzen dana.

G. *Zertarako da Sendotza edo Confirmacioa deritzan Sakramentua?*



E. Bataioan artu genduan sinismena sendotu ta indartzeko da Sendotza edo *Confirmacioa*.

G. *Nola artu bear da Sendotza?*

E. Jaungoikoaren grazian artu bear da Sendotza, ta grazian egon gabe artzen duanak obén astuna egiten du.

G. *Zer egin bear du, beraz, oben astunean dagonak, Sendotza artzeko?*

E. Oben astunean dagonak, Sendotza artzeko aitortu egin bear du.

## XLII IKASKIZUNA

### III Sakramentua: Eukaristia: Nor dagon.

G. *Zertarako jaña da Eukaristia deritzan Sakramentua?*

E. Bear bezela artuta gure animen janari ta Jaungoikoaren graziaren geigari izan dakigun, jaña da Eukaristia deritzan Sakramentua.

G. *Zer artzen degu Eukaristia deritzan Sakramentu guztiz Donean?*

E. Aldareko Sakramentuan egiaz ta benetan dagon Jesukristo, Jaungoiko ta gizon egiazkoa artzen degu Eukaristia deritzan Sakramentu guztiz Donean.



G. *Zer dago ostian Mezerdiko itzak esan baño len?*

E. Ogi pixka bat dago ostian, Mezerdiko itzak esan baño len.

G. *Zer dago ostian Mezrediko itzak esanezkeru?*

E. Jesukristoren gurputza, bere odol, anima, Jaungoikotasun ta guzti dago Osti Donean, Mezerdiko itzak esanezkeru.

G. *Zer dago kalizan, Mezerdiko itzak esan baño len?*

E. Ardo pixka bat ur-tanto batzuekin dago kalizan Mezerdiko itzak esan baño len.

G. *Zer dago kalizan, Mezerdiko itzak esanezkeru?*

E. Jesukristoren odola, bere gorputz, anima, Jaungoikotasun ta guzti dago kalizan, Mezerdiko itzak esanezkeru.

G. *Beraz, Mezerdiko itzak esanezkeru Jesukristo osorik dago Ostian eta Kalizan?*

E. Mezerdiko itzak esanezkeru, Jesukristo osorik dago ost. osoan eta osorik osti-puxka bakoitzean, eta berdin kalizan.

G. *Ogia ta ardoa, noiz biurtzen dira Jesukristoren gorputz eta odol?*

E. Apaizak Mezerdiko itzak esanaz batean, biurtzen dira ogia ta ardoa Jesukristoren gorputz eta odol.



G. *Eta Mezerdiazkero bai al da ostian ogirik eta kalizan ardorik?*

E. Ez jauna, Mezerdiazkero ez da, ez ostian ogirik, ez kalizan ardorik; ogi ta ardo usaia, gozoa ta gañerako eraskiak baizik.

G. *Eta Mezerdiazkero kalizan dagona edo ostia puskatzen bada, puskatzen al da Jesukristo?*

E. Ez jauna, Mezerdiazkero kalizan dagona edo ostia puskatu aŕen, Jesukristo bera ez da puskatzen: puska guztietan eta bakoitzean osorik gelditzen da?

G. *Munduko Osti Done guztietan bai al dago Jesukristo?*

E. Bai jauna, munduko Osti Done guztietan, antxe dago Jesukristo.

#### XLIII IKASKIZUNA

**Eukaristia: Jaunartzea: Noiz egin: Meza.**

G. *Nola egon bear du animak bear bezela Eukaristian Jauna artzeko?*

E. Jaungoikoaren grazian egon bear du animak bear bezela Eukaristian Jauna artzeko.

G. *Jakiñaren gañean, pekatu astu-nean Jaunartzea egiten duanak ere, artzen al du Jesukristo?*

E. Bai jauna, jakiñaren gañean pekatu



astunean Jaunartzea egiten duanak ere artzen du Jesukristo; bere kaltean, ordea, oben ikaragafi bat egiten bait-du.

G. *Eta oben astunen bat egiten duanak, bear bezela jaunartzeko zer egin bear du?*

E. Oben astunen bat egin duanak, bear bezela jaunartzeko, aitorketa on bat egin bear du.

G. *Eta Aitorketa egin-ta gero, aztutako oben astunen bat oroitzen zaionak zer egingo du?*

E. Aitorketa egin-ta gero, aztutako oben astunen bat oroitzen zaionak, oben ura aitortu egin bear du, Jaunartzea baño len al baldin bada, edo uréngo aitorketan, bestela.

G. *Eta bear bezela Jauna artzeko, nola egon bear du gorputzak?*

E. Bear bezela Jauna artzeko, pekatu astuna egin nai ez bada, gorputzak baraurik egon bear du, gaberditik eta Jaunartze-arte ezertxo ere jan eta edan gabe.



G. *Elizakoak egitean, baraurik egon ezaren, Jauna artu al diteke?*

E. Bai jauna, Elizakoak egitean, baraurik egon ezaren, Jauna artu diteke.

G. *On al da maiz Jauna artzea?*

E. Bai jauna oso on da saritan Jauna artzea.

G. *Zer bear da maiz ta egunero jaunartzeko?*

E. Maiz ta egunero jaunartzeko bi gauza bear dira; Jaungoikoaren grazian egon eto asmo zuzenaz jaunartu.

### **Eukaristia: Meza deritzan Opari Donea.**

G. *Eukaristia, Sakramentua baizik ez al da?*

E. Eukaristia Sakramentuaz gañera Lege Befian degun betiko Oparia da ta Oparia danez, Meza Donea deritza.

G. *Zer da (beraz) Meza Donea?*

E. Gure Aldareetan, ogi ta ardoaren eraskipean, Gurutzeko opariaren gogoangari egiten dan Jesukristoren gorputz eta odol-oparia da Meza Donea.

G. *Meza nork eta zertarako jarria da?*

E. Jaungoikoa goratu ta Berari eskerak emateko, eta Gurutzeko opariaren irabazkiak eta ordanak guganatzeko, Jesukristok berak jarria da Meza Donea.

G. *Norentzat eta zertarako atera diteke Meza Donea?*



E. Naiz ilentzat naiz bizientzat, eta animaren ondasunak naiz gorputzarenak iristeko, atera ditekete Meza Donea.

G. *On izango da (beraz) egunero Meza entzutea?*

E. Agindua ez dago baña oso ona da egunero Meza entzutea.

#### XLIV IKASKIZUNA

#### IV Sakramentua: Aitortza: Azterketa.

G. *Zertarako da Aitortza edo Confesioa deritzan Sakramentua?*

E. Bataiatuzkero egindako pekatuak barkatzeko, da Aitortza edo *Confesioa* deritzan Sakramentua.

G. *Zer oben barkatzen dira Aitortzaren bitartez?*

E. Oben astunak eta ariñak barkatzen dira Aitortzaren bitartez.

G. *Noiz artzen degu Aitortza deritzan Sakramentu au?*

E. Pekatuak ondo aitortu ta azkespena ematen zaigunean, artzen degu Aitortza deritzan Sakramentu au.

G. *Aitortza ondo egiteko zenbat gauza bear dira?*



E. Aitortza ondo egiteko bost gauza bear dira: Azterketa, biotz-damua, ontzeko asmoa, aozko aitorketa ta gaizki egiñen ordaña.

G. *Azterketa edo esamiña zer da?*

E. Jaungoikoari artarako laguntza eskatuta oraindik aitortu ez diran obena gogora ekartzen saiatzea, da azterketa edo esamiña.

G. *Azterketa nola egiten da?*

E. Jaungoikoaren eta Elizaren aginduak eta norbera ibili dan tokiak eta izan dituan eginkizunak gogora ekañiaz egiten da azterketa.

#### XLV IKASKIZUNA

#### IV Sakramentuaz geaiago: Damua ta asmoa.

G. *Damua zer da?*

E. Egindako obenen goñotoa ta gei-ago ez egiteko asmoa añerazten digun biotz-samintasuna da damua.

G. *Zenbat eratakoa da garbai edo damua?*

E. Garbai edo damua bi eratakoa da: Maite-damua ta bilduñ-damua.

G. *Zer da maite-damu edo Contricioa?*



E. On utsa ta osoro maitagaría dan Jaungoikoa naigabetu degulako biotz samintasuna, aitortu ondu ta oben-nekea betetzeko asmoz: orixe da maite-damua.

G. *Ea esazu maite-damua egiteko otoitza?*

E. Jesukristo nere Jaun, Jaungoiko ta gizon egiazko, nere egile ta salbatzaile ori, zerana zeralako ta gauza guztiak baño maiteago zaitudalako, damu det biotz-biotzez, damu det zu naigabetua: asmo sendoa artzen det ez geiago pekaturik egiteko, pekaturako bide guztiak utzi, aitortu ta oben-nekea betetzeko. Amen.

G. *Zer da bildur-damua edo atricioa?*

E. Jaungoikoa naigabetu degulako biotz-samintasuna, pekatuen itsuskeriagatik edo inpernu-bildurez edo zerua galdu degulako, aitortu, ondu ta oben nekea betetzeko asmoz: orixe da bildur-damua.

E. *Eta zein da bitan onena, maite ala bildur-damua?*

E. Damurik onena maite-damua da.

G. *Zergatik da maite-damua damurik onena.*

E. Beraren hitartez, aitortu baño lenago pekatu astunak ere barkatu ta Jaungoikoaren gra-



zian jartzen geralako, da maite damua damurik onena.

G. *Eta ondo aitortzeko bildur-damua naikoa da ala maite-damua bear da?*

E. Ondo aitortzeko naikoa da bildur-damua; ohea da, oratik, maite-damua, eta au izateko alegiñak egin bitza aitortzera dijoanak.

G. *Noiz izan bear da pekatuen damua?*

E. Apaizak azkespena eman-aufetik izan bear da pekatuen damua.

G. *Asmoa zer da?*

E. Obenik geiago beñere ez egin eta obenerako bideetatik alde egiteko erabaki sendoa da asmoa.

G. *Eta zeñek uste dezake bere aitorketan damu ta asmorik izan ez duala?*

E. Gaizkirako bideetatik alde egiten ez dutenak, eta bein eta beñiz aitortuañen, ostera len bezela bizi diranak uste dezakete beren aitorketan damu ta asmorik izan ez dutela.

#### LVI IKASKIZUNA

#### IV Sakramentuaz geiago: Aozko aitorketa.

G. *Zer da aozko aitorketa?*



E. Oben astun guztiak, beren oben-nekea betetzeko asmoz, gezurik gabe ta norberak dakizkian bezela apaizari aitortzea, da aozko aitorketa.

G. *Oben ariñak aitortzera beartuak al gaude?*

E. Ez jauna, ez gaude oben ariñak aitortzera beartuak: ona da ordea, ariñak ere aitortzea.

G. *Eta ariñak beste obenik ez duanak zer egin dezake ezezago damutzeko?*

E. Oben ariñak besterik ez duanak, oraingo ariñaz gañera, lenagoko astunen bat aitortu dezake, ezezago damu izateko.

G. *Eta oben astuna egiten dan bakoitzean, bearezkoa al da bereala aitortzea?*

E. On izango litzake oben astuna egiten dan bakoitzean bereala aitortzea, baina ez da bearezkoa.

G. *Zer egin bear da, beraz, oben astuna egiten danean, bere barkapena iristeko?*

E. Oben astuna egiten danean, bere barkapena iristeko, benetako maite-garbaiz damu izan bear da, ta Ama Eliza Doneak agindua daukanean aitortzeko asmoa artu.

G. *Nork ez du bear bezela egiten aitorketa?*

E. Oben astunen bat lotsaz naiz bil-



duñez aitortu gabe uzten duanak, eta damurik, edo ontzeko ta oben-nekea betetzeko asmorikan gabe aitortzen danak, ez du bear bezela egiten aitorketa.

G. *Zergatik ez degu oben astunik lotsaz naiz bilduñez aitortu gabe utzi bear?*

E. Apaizari aitortzean, Jesukristori aitortzen dizkiogulako, ta apaizak, aitorketan entzundako obenik, ilko balute ere azaldu ezin dezakelako, ez degu oben astunik lotsaz naiz bilduñez aitortu gabe utzi bear.

G. *Aitorketa bear bezela egiten ez duanak pekaturik egiten aldu?*

E. Bai jauna, aitorketa bear bezela egiten ez duanak, done-austea deritzan pekatu ikaragañia egiten du.

G. *Zer egin beañean gelditzen da aitorketa gaizki egiten duana?*

E. Gaizki egindako aitorketan esan dituan pekatu astunak, eta esan gabeak, eta ortan egin duan done-austea aitortu beañean gelditzen da aitorketa gaizki egin duana.

G. *Ea esazu «Confiteor» euskeraz?*

E. Nik, pekatari onek, aitortzen diot alguztidun Jaungoikoari, Andre María beti-Birgiñari, zoriondun Migel Goiaingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai, Beste Done guztiai eta zuri, ene Aita, pekaturik asko egin dedala, gogapen, itz eta egiteetan, nere eñuz, nere eñuz, nere eñu aundiz. Oregatik eskatzen diot Andre Ma-



ria beti-Birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai, beste Done guztiai ta zuri, ene Aita, otoitz egiozutela nere alde Jaungoiko gure Jaunari.

XLVII IKASKIZUNA

IV Sakramentuaz geiago: Ordañ Barkapenak

G. *Zer da ordaña?*

E. Apaizak ezartzen digun oben-neke edo penitentzia da ordaña.

G. *Oben-neke edo penitentzia zertarako da?*

E. Gure obenakgatik Jaungoikoari zor diogun aldiko nekea ordaintzeko da oben-neke edo penitentzia.

G. *Eta nolako pekatua egiten du oben-nekea bete gabe utzi edo betetzea asko luzatzen duanak?*

E. Oben-nekea bete gabe utzi edo betetzea asko luzatzen duanak, pekatu astuna egiten du, oben-nekea astuna baldin bada, ta ariña, oben-nekea ariña danean.

G. *Eta oben-nekeaz gañera beste inola aldiko neke-zoía ordaindu al genezake?*

E. Oben nekeaz gañera beste edozein egite onen bitartez, barkapenak irabaziaz, batez ere, pekatuen aldiko neke-zoía ordaindu genezake.

G. *Eta zer dira barkapenak edo indulgenciak?*



E. Bizitza onetan naiz garbitokian pekatuengatik ordaindu bear dan neke-zoña garbitzeko, Elizak egokitzen dizkigun emaitzak dira barkapen edo *indulgenciak*.

G. *Eta nola irabatzen dira barkapenak?*

E. Artarako agindurik dagona Jaungoikoaren grazian egiñaz, irabatzen dira barkapenak.

#### XLVIII IKASKIZUNA

### V Sakramentua: Azken-igurtzia

G. *Zertarako da Azken-igurtzia?*

E. Iru gauzatarako da azken-igurtzia: Lenengoa, egin-dako bizitza okeñaren aztarna ta kutsuak kentzeko; Bigañoena, inpernuko etsaiaren zirikaldiak azpiratzeko indaño animari emateko; Irugañoena, Animarentzat on bada, gorputzari osasuna emateko.

G. *Nor dago Azken-igurtzia artzeko beartua?*

E. Iltzeko ańiskuan eri dauden eza-gueradun kristauak daude Azken-igurtzia artzeko beartuak.

G. *Nolako obena egiten du, Jaungoikoaren grazian egon gabe, Azken-igurtzia artzen duanak?*

E. Jaungoikoaren grazian egon gabe Azken-igurtzia artzen duanak, oben astuna egiten du.



G. *Zer egin bear du, beraz, oben astunean dagonak, Azken-igurtzia artzeko?*

E. Oben astunean dagonak aitortu egin bear du, Azken-igurtzia artzeko, ta ezin badu, maite-damuz damutu bedi.

G. *Noiz artu bear da Azken-igurtzia?*

E. Al baldin badu, ezaguera duan bitartean artu bear du eri dagonak Azken-igurtzia; Elizakoak artuta bereala egokiena.

#### XLIX IRASKIZUNA

### VI eta VII Sakramentua: Apaizgintza; Ezkontza

G. *Zertarako da Apaizgintza deritzan Sakramentua?*

E. Elizako zaitzaleak, Apaiz, Diakono ta Subdiakonoak igurtzi ta artarakotzeko, da Apaizgintza deritzan Sakramentua.

G. *Elizako zaitzaleai begirapen eta lotsa izan bear al zaie?*

E. Bai jauna, Elizako zaitzaleai begirapen eta lotsa berezia izan bear zaie, Apaizai, batez ere.

G. *Zergatik izan bear zaie lotsa ta begirune berezia Apaizai ta Elizgizonai?*

E. Jaungoikoaren ondasun-zaiak eta Jesukristoren oñordekoak diralako, izan bear zaie lotsa ta begirune berezia Apaizai ta Elizgizonai.

G. *Zertarako da Ezkontza deritzan Sakramentua?*

E. Ezkontzeko, ta ezkonduai, elkarfe-



kin pakean bizi ta seme-alabak zerurako azi ditzaten, Jaungoikoaren laguntzak emateko, da Ezkontza deritzan Sakramentua.

G. *Eta zer bear da Sakramentu au ondo artzeko?*

E Sakramentu au artzean oben astuna egingo ez bada, beahezkoa da ezkongaiak Jaungoikoaren grazian izatea.

G. *Eta oben astunean dagonak zer egin bear du Sakramentu au bear bezela artzeko?*

E. Oben astunean dagonak Ezkontza bear bezela artzeko, aitorketa on baten bitartez Jaungoikoaren grazian jañi bear du.

G. *«Matrimonio civil» deritzan ori kristauen artean Sakramentua al da?*

E. «Matrimonio civil» deritzan ori kristauen artean ez ezkontza ta ez Sakramentu, sasi-ezkontza zantar bat baizik ez da.

#### L IKASKIZUNA

G. *Orain arte esan ditugun gauzaz gañera, beste ezer erakutsi al zuan Jesukristok?*

E. Bai jauna, orain arte esan ditugunaz gañera, beste gauza eder asko ere erakutsi zituan Jesukristok.

G. *Jesukristoren beste erakutsirik ederenetan bat zein da?*

E. Jesukristoren beste erakutsirik bikain ta ederenetan bat zoriontasunai dagokiena da.

G. *Jesukristok erakutsitako zoriontasunak zenbat eta zeintzuk dira?*

E. Jesukristok erakutsitako zoriontasunak zortzi oietxek dira.



Zorionekoak biotzez beartsu diranak; berena dute zeruetako ofeinua.

Zorionekoak otzanak; lufaren jabe izango dira.

Zorionekoak negar egiten dutenak; poztuak izango dira.

Zorionekoak zuzenaren gose ta egafi diranak; aseak izango dira.

Zorionekoak efukioñak; efukia iritxiko dute.

Zorionekoak biotz-garbidunak: Jaungoikoa ikusiko dute.


Zorionekoak zuzentasunagatik gofoto ta erasoak artzen dituztenak; berena dute zeruetako efeinua.

*G. Zergatik deritzaie zoriontasunak zortzi eginkizun oiei?*

E. Bizitza onetako zoriona ta betikoaren itxaropena beroietan dagolako, deritzaie zoriontasunak zortzi eginkizu oiei.







## AGURTZA DONEA

*(Errosario Santua)*



*Gurutze Santuaren..... Jesukristo nere Jain.*

Graziaz ta erukizko Ama gorde ta zaitu gaitza-  
zu orain et geren eriotzeko orduan.—Amen.

*gorroa*  
POZEKO EZKUTUKIAK

*Lumen Jauregia*  
*(Astelen eta ostegunetarako).*

Lenengo gertakaria: Jaungoiko-Semearen Giza-  
kundera.

Bigarren gertakaria: Andre Mariak bere lengusua-  
ri egindako ikustaldia.

Irugarren gertakaria: Jaungoiko-Semearen jaiotza.

Laugarren gertakaria: Andre Mariaren Elizan sar-  
tzea.

Boskaren gertakaria: Jesus aua galdu ta Elizan  
arkitzea.





Zakarias Martínez Jauna  
Gazteizko Obispoa